

TOKIKOM

2022ko ekaina | 226. zenbakia

ai!z!r!

txori-izkaria



Azkarrena

Alazne Etxebarria, atleta



PELUKERIA LARRABETZU

(LARRABETZU)

ANGULERI KALEA 2 / 944 558 144



FORD GOIRI (SONDIKA)

KONTZESIONARIOA ETA TAILERRA

TXORIERRI ETORBIDEA 46 / 944 532 515



ZUK
EGITEN DUZU
Txorierrri!



IZPILEN (SONDIKA)

PARAFARMAZIA / BELAR-DENDA

SABINO ARANA KALEA 3 / 946 558 000



IKUSLAN

OPTIKA (ZAMUDIO)

ARBOLANTXA KALEA 5 / 944 522 818

-  **4** Iritziak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **12** Iker Galartza, Gure Zirkua
-  **14** Gaztea eta... Amets Zulueta, zinema-ikaslea
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Menditik patxadaz
-  **20** Gai nagusia... Alazne Etxebarria, atleta
-  **24** Sondikako jaiak
-  **28** Euskaraldia 2022
-  **30** Larrabetzuko Gazte Eguna
-  **32** Emaus
-  **33** Herbarioa... Milorria
-  **34** Teknologia... Aerotaxiak
-  **35** Aikorrizketa... San Joan sua
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Zu argazkilari



12 Gure Zirkua, Lezaman



24 Sondikako jaiak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko
Euskara Elkarten Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta eta Tximintx
komunitatea)
944 523 447 / 688 864 135 /
747 406 561
aikortxori@aikor.com / www.aikor.eus



Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea
Kolaboratzaileak: Imanol Alvarez, Ixone Zubieta, Jose Angel Mentxaka,
Estitxu Perez, Iratxe Pirla, Iñaki Olabarrieta, Izar Mendiguren, Ander Canales
"Gigio", Joanes Camara, Idoia Andres eta Txiribita

Zuzentzaileak: Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Kattalin Barcena (688 782 642)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako
esanen edota eretxien erantzukizunik

“Inter” ezak/n

Jakin-minetik sortu zen filosofia. Arbola orok hazia du jatorrian, eta mundu ulergaitz hartan harridurak ureztatu zituen erantzun mitologikoen ordeztatu sortutako lehen arrazoiketarik ere bai. Jakin-nahi hori ez da desagertu, ordea: miraria balitz moduan haurtzarora agertzen da, Grezian gertatutakoa errepikatuz, eta gizartea den ehunzango handiaren hankak mugiarazten ditu oraindik, bigarren horren kutsu praktikoagoak lehenaren erromantizismoa ez badu ere. Marxek, bestalde, esan zuen filosofoak mendeetan mundua deskribatzeaz arduratu zirela eta hori eraldatzeko garaia zela. Errealitatea nolakoa den ulertzea funtsezkoa delako; mundua justuagoa imajinatzeak gaitasuna bezain funtsezkoa.

Lanean hartutako kafetik dator go-goeta. Gustatu ala ez, denborak aurrera egin ahala ulertu dut bizitza etengabeko negoziaketa dela: nor bere buruarekin zein lankide, bikotekide, lagun eta he-

rrikideekin. Eremu pertsonalean burugogorkeriak edo itsutasunak nahasten gaitu, baina eremu sozialean interesak agertzen dira sarriago. Beraz, elkarriketa da gure patua, eta argudiaketa hari aurre egiteko modua. Baina elkarriketa idearen ezaugarriak izendatu zituenean Habermasek esan moduan, zintzotasuna da pastelaren legamia. Eztabaida honen ingurukoa zen: batzuen ustez, auzi batean nor bere interesak defendatzea zilegia zela, nahiz eta bidezkoena ez zela jakin. Nik ikasle batek esandakoa mahaigaineratu nuen: “Aitaren esanetan, gizon feminista inozoa da, bere interesen kontra egiten baitu”. Esaldi horretan mamitsua da interesez hitza, tamalez, materialismotik zein indibidualismotik kanpo nekez ulertzen duguna. Baina muturreko adibide horretan berdintasuna onura kolektibo moduan erraz ulertu arren, askotan dezente gehiago kostatzen zaigu balioei ematea jarreraren irizpide-paperean beharko luke-



IMANOL ALVAREZ
Filosofia irakaslea

ten lekua. Sokratesek zioen inor ez zela gaiztoa, ezjakina baizik. Agian, zerikusia du darabilgun interes-kontzeptuaren es-tutasunarekin.

Ez dut sinplekerietan sartu nahi, halere: kooperazio-kompetentzia bizi gara eta ez da erraza justiziaz jokatzeko, ordainetan berdina nekez jasotzen badugu. Baina jarrera guztiak kutsakorrak dira maila berean eta, beharbada, konturatu ahal gara norberarena eta besteena lotuta daudela. Nik, behintzat, hazia bota nahi nuen.

Imajinatzea ezinezko egiten bazitzaigun ere, bi urte pasatu ditugu jai barik. Bi urte hauetan osasun erabakiak hartu direla esan da, baina zehaztu beharko litzateke osasun fisikoa bermatzeko erabakiak hartu direla. Izan ere, Munduko Osasun Erakundeak 1946an zehaztu zuen moduan, “osasuna erabateko ongizate fisikoa, mentala eta soziala da, eta ez bakarrik gaitasunak eza”.

Neurri batean edo bestean, esperientzia honek alde emozionala eta soziala murriztu digu guztioi; eta, zer esanik ez, nerabeei. Gizarteak eragin handia du adin-tarte guztietan, baina bestelako eragina da nerabezaroen: mundua deskubritzen da,

Badatoz jaiak!



IXONE ZUBIETA
Lainomendi dantza taldearen kidea

kuadrilla oinarritzakoa da eta lagun arteko harremanak beste etapa batzuetan baino biziagoak dira eta eragin handiagoa dute.

Jaiak harreman horiek sortzeko gu-neak izan dira betidanik. Ez dezagun osasuna oso-osorik garatzeko aukera galdu, izan gaitzeen sozialak eta erre-kupera dezagun galdutakoa! Aitzakia guztiak dira onak: jaiak, kontzertuak, txapelketak, dantzari eguna... Agendak berehala bete zaizkigu. Baina kontuz, en-trenamendu falta ere nabaritzen da eta!

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikazkiak, orokorrean
Auzokoen konzentratuak
Mantentze garbi-ikazkiak
Bulargak eta lokalkak
Otroko enbriak garbituak
Ikastetxeak
Zahar bilaketa

Beside Plaza, 1 - Bº Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

tik tak

EGUNEKO MENUA

lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

T: 94 454 55 55

Bestorene 5, Behea
48160 DERIO

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

Zerbitzu Berriak
Logopedia
Podologia
Kiropraxia

**clínica dental
ZAINDUZ**
hortz klinika

Txantoni etorbidea, 9 - Lorja | Anaga erakina | 48160 DERIO

94 454 01 01 | 657 79 54 45

info@dentaltzainduz.com | www.dentaltzainduz.com

Zamudio museo bihurtuko da Lagatzu Egunean

"Zirgariak", Dora Salazar.
a: wikipedia



Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak Lagatzu Eguna ospatuko du ekainaren 25ean. Pandemia zela-eta, aurreko urte biotan era ezberdin batean egin zen, baina aurten normaltasunera itzuli da. Betiko moduan, herriko taldeek gogotsu hartuko dute parte ospakizunetan. Nobedaderik handiena bazkaria izango da: ez da betiko moduan Kultur Etxean egingo, Agirre Lehendakari plazan baizik.

Lagatzukoek "Benetako artea, euskara erabiltea" hartuko dute aurten lelotzat. "Taldea kulturala ere bagara eta arte ederreari omenaldi txikia egin nahi izan diegu. Batzuetan euskal pinturak eta eskulturak ez dira oso ezagunak, batez ere garaikideak, agian ulertzen ez ditugulako. Beraz, 12:00etatik aurrera herriko taldeek artista euskaldun batzuen lanak antzeztuko dituzte (Dora Salazar, Remigio

Mendiburu, Nestor Basterretxea...) Agirre Lehendakari plazan eta, bitartean, Iker Landetak artelan bakoitzaren ezau-garrien berri emango du; bukatzeko, Rafael Ruiz Balerdiren 'Lorategi handia' egingo dugu", esan digu Iñaki Atxutegi Lagatzu elkartearen kideak. Ekitaldian, Zamudioko Kamara Korralak ere hartuko du parte.

Arte-lanak antzeztu ostean, taldeek kalejira egingo dute Zamudiotik, Kantarelux eta Bertoko taldeek girotuta. 15:00etan, bazkaltzeko ordua izango da. Betiko moduan, herri bazkaria antolatu da, baina ez ohiko lekuan, Agirre Lehendakaria plazan baizik. Bazkalostean Taberna Ibiltaria taldeak kontzertua eskainiko du, eta ondoren Trikitzio taldeak erromeria egingo du.

Egunik garrantzitsuenaz zapatua izango da, ekainaren 25a, baina aurreko urte-etan moduan, Lagatzu Eguna aurreko egunean, barikuan, ekainaren 24an hasiko da. 20:00etan *Inguruko berbak* liburua aurkeztuko da Kultur Etxean. Liburuxka Lagatzu elkarteak eraman du argitara eta hiztegi ilustratua da. Aurkezpenean egin eta gero, kontzertua egingo da Fernan taborneran.

Euskal jantziak

"Urte bi eman ditugu normaltasunik gabe: 2020an, Lagatzu Egun birtuala egin genuen, bakoitza bere etxean; eta iaz, euskal astea egin genuen, segurtasun-neurriak beteaz. Aurten, azkenean, normaltasun osoz ospatuko dugu Lagatzu Eguna, lehen egiten genuen moduan. Eta herriko taldeek gogotsu egingo dute bat jaiarekin", aipatu du Atxutegik. Lagatzukoek gonbita egin diete euskaltzaleei Lagatzu Egunean parte hartzeko eta, ahal den neurrian, euskal jantziak janzteko.

**sarraila-denda
Txorierri**
ADITURAK BARRAILAGINTZAN ETA SEGURTASUNEAN

946 038 663
625 100 800
info@cerrajeriatxorierri.com
www.cerrajeriatxorierri.com

Alain Pomposo Zarate
Urkiola, 4. lorja
48160 Deno

 **Goiri'78 s.l.**
Zerbitzu ofiziala



Txorierri et., 46
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa



Txori etxetik: 9-4
413. bulegoa
48160 Deno

Telefona eta faxa
94 454 44 88
a.amondarain@euzkoibet.net

Ukrainaren aldeko kirol-asteburua

Ekainaren 10etik 12ra kirol-jaia egin zen Sondikan, hango udalaren eta kirol-elkarteen eskutik. Gorondabeko kiroldegian eta Basozabal futbol-zelaian hainbat ekintza izan ziren, hala nola saskibaloia, futbol- eta pilota-partidak, kirol-erronkak, hiruko txapelketak eta penaltiak jaurtitzea. Gainera, herritarrek bizikleta estatiko baten gainean Ukrainaren alde eragin zieten pedalei. Asteburu horretan batutako dirua Bizkaiko Gurutze Gorriari emango diote, Ukrainan dituen gizaldekoko proiektuetara bidera dezan.

Bestalde, kirol-asteburuaren aurreko egunetan, armada errusiarraren aldeko pintadak agertu ziren udaletxean. Sondikako Udalaren ustez, baliteke pintadek Ukrainaren aldeko ekimenekin zerikusia izatea, eta irmoki gaitzetsi zituzten.



Uriarte, txapelduna; Hormaetxe, txapeldunordea



Ekainaren lehen asteburuan, Bizkaiko Lau t'erdiko Txapelketa-Derio Koparen finalak jokatu ziren Derion. Finalisten artean, pilotari txorierriar bi izan genituen: Oier Hormaetxe lezamarra eta Aiala Uriarte loiuztarra. Lehenengoak ezin izan zuen txapela jantzi; bigarrenak, aldiz, txapelketa irabazi zuen.

Emakumezkoen bigarren mailan, Aiala Uriartek (Lezamako pilota kluba) 22 eta 6 irabazi zion Amaia Zarrabeitiari (Arkupe). Hasieran, partida orekatua izan zen, baina seigarren puntutik aurrera loiuztarra argi

eta garbi nagusitu zen. Uriartek urte bi daramatza pilotari eta aurtien Bizkaiko Federazioaren hiru txapelketatan hartu du parte; eta hirurak irabazi.

Bestetik, nagusien lehenengo mailan, Oier Ormaetxek (Lezama) 22 eta 18 galdu zuen Gaizka Karregalen (Adis-kide) aurka. Partida gogorra izan zen: hasieran, Karregal nagusitu zen; geroago, Hormaetxek buelta eman zion markagailuari; azkenean, lezamarrari pilota batzuk txapara joan zitzaizkion; beraz, ezin izan zuen txapela jantzi.

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 08

RPS: 184/10

TIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Hortz-klinika IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Airelza doktorea, 11. - 1. ezk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

AmAr
ileapaindegia

Astearte-ostiralea:
9:00-19:00
Laburbata:
8:00-13:30

Urbe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

Carrefour express

ORDUTEGIA
Autelohenetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, behea B
48150 SONDIKA

634 410 470
auzokidefincas@gmail.com

Luis Vazquezen taldeak emaitzak ezin hobeak lortu zituen Madrilen

Maiatzaren azken asteburuan, Borroka Arteen Open Nazionalaren seigarren edizioa egin zen Torrejón de Ardozen, Madrilen, eta Luis Vazquez deriotarraren taldeak emaitza ezin hobeak lortu zituen bertan. Horrela, bada, borroka kategorian bost urrezko domina eskuratu zituzten, zilarrezko domina bat eta brontzezko domina bat; defentsa pertsonalaren kategorian, zilarrezko domina bat; eta bo-

rroka eta emakumezkoen kategorian, Txapeldunen Txapeldunen Gerrikoa.

Derioko, Erandioko, Mungiako, Bilboko eta Barakaldoko borrokalariek osatzen dute Vazquezen taldea. Hauek dira: Maitane Castaneira, Iratxe Madariaga, Naiara Giraldo, Noa de Miguel, Jon Molinete, Alex Madariaga, Enzo Vazquez eta Aaron Hernandez. Txapelketan Estatuko hainbat taldek hartu zuten parte.



Marikobaso Eguna

Ekainaren 25ean, Marikobaso Eguna egingo da lehen aldiz, "laguntza eman diguzuen guztiei esker ona adierazteko eta elkarrekin egun polita pasatzeko", zabaldu dute kideek gizarte-sareen bidez. Ekintzak goiz-goizetik hasiko dira: 11:00etan bisita gidatua egingo dute Marikobaso auzotik, eta 12:30etik aurrera poteo musikatua izango da herritik. Herri-bazkaria 15:00etan izango da Santimamin, eta izena ematea marikobaso.martxan@gmail.com helbide elektronikora idatzita egin behar da. Ondoren, jolasak egongo dira, eta 19:30ean, Akelarrea, Koxak talde feministaren eskutik.

Okerrak zuzenduz

Maiatzeko alean, "Baso-azalera leheneratzeko proiektua, hizpide Zamudion" albistea argitaratu genuen 10. orrialdean, eta esan genuen ekainaren 7an horri buruzko hitzaldia izango zela. Informazioa ez zen zuzena, hitzaldi hori duela urte batzuk egin zen eta. Bestalde, "Ez adiorik, Isabel eta Fernando!" erreportajea argitaratu genuen 30. eta 31. orrialdeetan. Horretan idatzi genuen "Lejarrene jatetxeko sukaldea itxi zela betiko", baina ez da egia: jatetxearen jabeek azaldu digutenez, azken errentariak erretiroa hartuta, espero dute jatetxea laster berriro zabaldu ahal izatea. Bitartean, eraberritze-lanak egingo dituzte bertan.

Zure antzinako bitxiak ekarrita, urrea berrerrabiltzen dugu, zure ametsetako harribitxia sortuz.

Bitxitegia
Zuluaga
Juan Bautista Uriarte, 49 | GALDAKAO
Tel. 94 456 73 74

...eta forma ematen diogu...

Zure antzinako bitxiak ekarrita...

...urrea urtzen dugu berrerrabiltzeko...

...zure ametsetako harribitxia sortuz.

Beste Birak zazpi domina lortu ditu Euskadiko Master Txapelketan

Emaizak ezin hobeak lortu zituzten Beste Birako atletak Euskadiko Master Txapelketan, hainbat modalitatetan zazpi domina lortu zituzten eta. Egoitz Piñeirok, abiadura-lasterkari trebatua denak, urrezko domina lortu zuen 100 metroko lasterketan, eta zilarrezko domina, 200 metroko lasterketan. Javier Allendek hiru lasterketan parte hartu zuen eta hiruretan lortu zuen urrezko domina: 400, 800 eta 1.500 metroko lasterketan. Bestalde, Jon Irazusta bigarrena izan zen 800 metroko lasterketan, eta Martin McGrath Euskadiko txapeldunordea izan zen 5.000 metroko lasterketan.

Herri-krosa izango da Loiun ekainaren 25ean

Beste Bira klubak antolatuta, irteera eta helmuga Alonsotegi plazan ipini dituzte. Guztira sei proba egingo dira: 10:30ean, absolutua (4 km); 11:30ean, kadeteak eta haurrak (1.800 m); 11:50ean, kimuak (1.200 m); 12:05ean, benjaminak (600 m); 12:20an, aurrebenjaminak (300 m); eta txikiak (100 m). Izena ematea bestebiraloiu@gmail.com helbide elektronikora idatzita egin daiteke, 609 417 996 telefono-zenbakira deituta edo proba hasi baino 30 minutu lehenago.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, sariak banatuko dira parte-hartzaileen artean. Kategoría absolutuko irabazleak trofeoa jasoko du saritzat, eta bigarren postuaren eta seigarren postuaren bitartean gelditzen direnek, domina bana. Gainerako kategorietan dominak banatuko dira lehenengo hiru

Bizitza eman zuten Derion

"Eman muina, eman bizitza". Horixe da Osakidetza erabili duen leloa hezur-muina emateko kanpaina zabaltzeko. Eta esaldi bera lelotzat ere hartu zuten Muros de Bizkaia – Bizkaiko Infernua martxa zikloturistaren antolatzaileek. Casco Viejo Txirrindularitza elkarteak lehendabiziko aldiz antolatu zuen martxa Derion, eta poz-pozik agertu zen, helburu bakarra baita hezur-muina ematearen garrantzia ikusgai egitea.

"Dena biribil atera zaigu: eguraldia, txirrindulariak, ibilbidea... Eta guztiak gaude pozik, noski, antolatzaileak, babesleak, parte-hartzaileak... Guk hezur-muina emateari garrantzia eta ikusgarritasuna eman nahi izan diogu. Horren haritik, 200 txirrindularik hartu dute parte saioan eta 6.500 bisita izan ditugu gizarte sareetan eta webgunean. Aurtun lehenengo aldiz egin dugu martxa, baina arrakasta ikusita, gutxienez datorren urtean ere egingo dugu", esan zigun Iñaki Barrenetxea Casco Viejo Txirrindularitza Elkartearen presidentea.

Martxa elkartearen txokoan sortu zen. "Euskal Herrian hainbat ekimen sortzen dira txokoetan (kar-kar). Duela 25 urte,

Arkaitz Santamaria eta biok elkarrekin ibili ginen Banaka taldean eta harrezkero egon gara harremanetan. Berari hezur-muina eman diote eta hori zabaldu nahi genuen. Martxa horregatik antolatu genuen", adierazi du Barrenetxeak.

Muros de Bizkaia – Bizkaiko Infernua martxak bigarren helburua ere izan zuen: bigarren mailako Bizkaiko errepideak ezagutzera ematea. "Errepide nagusietatik ibiltzen gara normalean, baina Bizkaian bigarren mailako errepide zoragarriak ditugu eta ez dira hain ezagunak. Begoñako parte-hartzaile batek esan dit Biberora mila aldiz joan dela, etxetik gertu duelako, baina ez da inoiz martxaren egunean bertan egindako bidetik joan".

Kirolariek Derion hasi eta bukatu zuten ibilbidea: tartean, besteak beste, Galdakao eta Zornotza bisitatu zituzten. Ibilbide bi egon ziren: bata, 117 kilometrokoa (2.691 metroko desnibela); eta bestea, 93 kilometrokoa (2.142 metroko desnibela). Martxa Aspanovas elkartarekin eta Derioko Udalarekin lankidetzan egin zen. "Derion egin dugu babesle nagusia hemengoa baita. Eskerrik asko berari eta udalari, izugarrizko laguntza eman



L. LEIZAOLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)
946 522 857

CK

OAKLAND

ENGLISH

PATXI
KOOP

PIAZA KOOPERATIBA ELKARTEA
San Mateo plaza 11 - 48100 Zamudio (Bizkaia) - Tel: 944 520 057 - info@patxi.coop - www.patxi.coop

ZAMUDIO
Lotería Nacionala

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

Memoria Historikoaren Plaza du Larrabetzuk



a: Idoia Andres

Ekainaren 11n, ez ohiko bilkura egin zuten Larrabetzun. Bertan onartu zutenenez, Anguleri kultur etxearen inguruko plaza Memoria Historikoaren plaza izango da hemendik aurrera. Era berean, Larrabetzuren eta Gabiriaren arteko senidetza onetsi zen, eta omenaldia egin zieten Bizkargin borrokatu zuten Gabiriako sei gudariei. Horrezaz gainera, "Larrabetzu 1937-2022 Memoria Historikoa Lantzen" erakunde-adierazpena onartu zuten.

Beste herri batzuk moduan, Burdin Hesia defentsa-lerroaren parte zen Larrabetzu. 1937ko ekainean, frankistek hura apartu zuten eta herrira sartu ziren. Besteak beste, ez ohiko bilkura egin zen aretoa gerra-espetxe bihurtu zuten. "Nahi izan gabe eta aukeratu gabe, guda leku garrantzitsu izan zen, Burdin Hesiararen parte izate hutsagatik. Gertaera horrek Larrabetzuko historiarekin eta herritarren oroimen kolektiboarekin lotura estua dauka. Gudaldi gogorrak jazo ziren 1937ko ekainean; defentsa sutsua egin zuten frankisten aurka borrokatu ziren euskaldunek, harik eta apurtu zen arte".

"Jakina denez, aurrez aurreko gerraren bukaerak ez zuen bakerik ekarri, errepresioa izan baitzen gatazka militarren ondoren Francok ezarritako erregimen politikoaren ardatza. Faxistak Larrabetzun

sartzearekin batera, herriak aukeratutako agintariak bota eta faxistak jarri zituzten agintzen. Latzak izan ziren gure herriarentzat orduko egunak ez eze, gero etorri ziren urte guztiak ere. Herritarrek jazarri zituzten, eta erbestea eta zigorra jasan zuten hainbat larrabetzuarrek".

Erakunde-adierazpenaren bidez, "batetik, salatu egin gura dugu bidegabekeria hura, demokraziaren aurkako matxinada eta haren eraginez herriari eragindako sufrimendua. Beste alde batetik, esker ona eta elkartasunik handiena adierazi gura diegu gure herriaren askatasunaren eta demokraziaren alde borrokan ibili zirenei: euskal gudarosteko gudariei, kanpotik laguntzera etorritakoei eta gerra eta gerraren ondorioak sufritu behar izan zituzten herritar guztiei. Izan zinetelako gara. Horregatik guztiagatik, gure konpromisoa berresten dugu, urte horietan gertatutakoaren gainean ezarritako isiltasuna apurtzeko eta jazotako guztiaren gaineko ezagutza zabaltzen laguntzeko". Bestalde, "aipamen berezia egin nahi diogu gerra sasoi hartan Larrabetzuko alkatea zen Miguel Ereñori –zeinak 1936ko urrian gerratik ihesi Gipuzkoatik Larrabetzura etorri ziren lehenengo errefuxiatuak bere etxean hartu baitzituen–, eta orduko udal korporazio osoari; hau da, faxistak sartu arte Larrabetzun jardunean aritu zen azken udal-talde legitimoari".

San Joan sua

Arbasoek egin ohi zuten moduan, ekainaren 23an suak piztuko dira eguzkiari indarra emateko. Zaharra edo txarra ere erreko dugu, eta etapa berri bat hasi. Gainera, egun osoan ekintzak izango dira herrietan.

Derion, esate baterako, puzgarriak eta umeentzako tailerrak egongo dira eskolako patioan egun osoan, eta arratsaldean, orkestra, txitxi-burruntzia eta txokolatea. Sua 22:00etan piztuko dute.

Zamudion, musikaz eta jardueraz betetako ekitaldia izango dute 18:00etatik aurrera Bidekoetxe parkean. Sua 19:30ean piztuko dute, eta txitxi-burruntzia egin. Ondoren, Kantarelux musika-taldeak girotuko du jaia.

Lezaman akelarrea antolatu dute San Joan bezperako, eta Larrabetzun sorginen gaua ospatuko dute.

Azkenik, ohikoa denez, sondikoztarrak kalejiran aterako dira sua piztera.



WhatsApp taldearen harpidedunen arteko zozketa

Igor Mendieta da ekaineko irabazlea eta Baserri Antzokian lagun birentzako bazkaria jasoko du saritzat.

WhatsApp taldean sartzeko eta Txorierriko albisteak jasotzeko, idatzi ALTA hitza eta bidali whatsapp mezua **747 406 561** telefono-zenbakira.

Del Rio, txapelduna!



Ekainaren 10ean Bizkaia Open Nazioarteko Torneoren finala izan zen. Finala Asier del Río lezamarrak jokatu zuen Esteban Gaubeka pala-lagun zuela. Del Río eta Gaubeka 3 eta 0 nagusitu ziren Beñat Ibargureni eta Ibai Pereziri irabazita: 10 eta 7, 10 eta 5 eta 10 eta 6. Lezamarrak txapela lehen aldiz irabazi du profesional mailan.

Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatu eta Innpalak antolatutako 2022ko Nazioarteko Bizkaia Open Txapelketa apirilaren 2an hasi zen Bizkaia Frontoian. Txapelketak 10 jardunaldi izan ditu eta Bizkaiko sei pilotalekutan jokatu da: Bizkaia Frontoian, Larrabetzun, Plentzian, Sopelan, Arminztan eta Zierbenan. Torneoan sei bikotek hartu dute parte: Necol eta Alkorta; Gaubeka eta Del Río; Fusto eta Ruiz; Maldonado eta Gordon; Madariaga eta Urrutia; eta Ibarguren eta Ibai Perez.



a: Asier Saenz

Gora Lezamako txakolina!

Bi urteko geldialdiaren ostean, Lezamako Udalak Txakolinaren Eguna 19. aldiz antolatu zuen ekainaren 5ean. Herriko ekitaldi garrantzitsuenetakoa da eta protagonista bertako upeltegien ardoa izan zen: Basalbeiti, Erdikoetxe, Garkalde eta Magalarte. Jendetza batu zen Lezaman.

"Guztiak gaude poz-pozik: antolatzaileok, ekoizleak, baserritarrak... Jende asko etorri zen Lezamara, salmentak primeran joan ziren, bai txakolinarenak –guztira 700 kopa saldu genituen–, bai baserriko

produktuenak... Urte bi eman ditugu azoka barik eta badirudi jendea gogotsu dabilela, kalera atera nahi duela, lehengo ohiturak berreskuratu nahi dituela", esan zuen Jon Ander Aurrekoetxea Lezamako alkateak.

Azoka goizean egin zen Hilario Astorki plazan, 11:00etatik 15:00etara. Han iazko uzta dastatzeko aukera egon zen, baita baserriko hainbat produktue ere. Horretarako 36 postu jarri ziren. Gainera, Kurutze dantza taldeko ume-

ek erakustaldia egin zuten. Azokan hauek hartu zuten parte: Jose Angel Iribar Athleticen jokalaria ohia 2022ko enbaxadore izendatu zuten; Pedro Mari Goikoetxe kazetaria aurkezle ibili zen; eta Asier Dañobeitia herriko sommelierak ardoaren ezaugarrien berri eman zuen. Umeentzako tailerrak egin ziren eta arrastian erromeria egin zen, Joxe Mendizabalen eskutik. Era berean, Jon Enbeitaren eta Ireneo Ajuria bertsolariak aritu ziren.

San Pedro eta Santa Luzia, Loiu

Loiuko alkateak, Josu Andoni Begoñak, bere webgunean jakinarazi du San Pedro eta Santa Luzia jaietako egitaraua. Jaiek 10 egun iraungo dute eta guztientzako ekintzak izango dira.

Ekainak 24, barikua

–21:30 Las Tequilas.

Ekainak 25, zapatua

–10:00 Herri-krosa.

–14:00 Tortillak aurkeztea.

–17:00 Luhartz.

–20:00 Tortilla txapelketaren sariak banatzea.

–22:00 Rock berbena.

Ekainak 26, domeka

–10:00 Mendi-martxa.

–12:30 Txiki Rock.

–19:30 Mariatxiak.

Ekainak 27, astelehena

–18:00 Loiuri buruzko pelikula. Loiu Laztana elkarteak antolatua.

–19:00 2023ko egutegirako argazkiak ataratzeta. Loiu Laztana elkarteak antolatua.

–19:30 Mago Oliver.

Ekainak 28, martitzena

–12:00 2023ko egutegirako argazkiak ataratzeta. Loiu Laztana elkarteak antolatua.

–18:00 Kantu Kolore.

–19:00 Sardina-jana.

–19:30 Mariatxiak eta jotak.

Ekainak 29, eguaztena

–12:00 Meza eta kontzertua: Pedro Guallar, Miriam Cepeda eta Luis Alberto Requejo.



Urtz taldea

–13:15 Kopaua.

–19:00 Txupinazoa eta Karabizuri aurkeztea.

–19:15 Leiho eta balkoi apainduen lehia-ketaren sariak ematea.

–19:30 Dantza modernoaren erakustaldia.

–21:30 Berbena: Akerbeltz.

Ekainak 30, eguena

–12:00 Meza eta kontzertua: Pedro Guallar, Miriam Cepeda eta Luis Alberto Requejo.

–14:30 Jubilatuen bazkaria. Jubilatuen elkarteak antolatua.

–16:30 Iñaki Basabe. Jubilatuen elkarteak antolatua.

–17:30 Afrika dantzak. Loiuko Bakarrak elkarteak antolatua.

–19:00 Aintzinako paisaia biziberritzen dokumentala aurkeztea (gonbidapenak, ekainaren 27tik aurrera liburutegian). Loiuko Bakarrak eta Ipi-Apa elkarteek antolatua.

–21:00 Urtz eta Bulego.

Uztailak 1, barikua

–12:00 Triki-poteoa. Loiuko Bakarrak elkarteak antolatua.

–15:00 Gazteen bazkaria. Loiuko Bakarrak elkarteak antolatua.

–18:00 Elektrotxaranga. Loiuko Bakarrak elkarteak antolatua.

–22:30 Kontzertua: Cafe Quijano.

–00:00 Oxabi.

–03:00 Dj Markelin.

Uztailak 2, zapatua

–11:00 Puzgarriak.

–13:30 Paellak aurkeztea.

–16:00 Aparra.

–16:30 Sariak banatzea.

–17:00 Five Direction.

–18:30 La Mundial orkestra.

–22:30 Kontzertua: Zetak.

–00:00 Capitan Elefante.

–02:00 Dj Ibai.

Uztailak 3, domeka

–12:00 Slalom drift erakustaldia. Txori Bikers elkarteak antolatua.

–17:30 Goialde dantza-taldea.

–18:30 Dj Xaibor.

–20:30 Korrontzi.

–22:00 Txokolatea eta jaiak amaitzea.

enviser

Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak | Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa | Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Ibáñez de Bilbao, 3. 2. solairua, 48001 BILBAO

TEL. 94 424 38 34

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

**BASALBEITIKO
TXAKOLINA**

Bizkaiko Txakolina
Denominazioa de origen

Bizkaiko Txakolina

Goitortza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

t: Izar Mendiguren Cosgaya (Aiaraldea)

Zer da Gure Zirkua?

Magia eskaintzen duen familia bat da Gure Zirkua. Saiatzen gara atontzen, polita jartzen, musikarekin mimitzen... Azken finean, gozatzen. Gozatzeko ez da behar arriskuak hartzea, ez du merezi.

Gure Zirkua sortzea erabaki zenuten duela bost urte. Zelan?

2017ko urrian bost emanaldi eman genituen, kamioirik gabe. Horrela lortu genuen hesiak eta egurrak margotzea. 2018ko ekainean erosi genuen kamioia, bigarren eskukoa; eta orduantxe hasi ginen ibilian.

Zelan otu zitzaizuen euskal zirkua gorpuztea?

Aldaketa garaia zen niretzat, 40 urteko krisialdian nengoen. Lehendik ere, pailazo emanaldiak genituen (urtean 80 bat), eta antzerkiarekin nahikoa nuen. Pailazo-kidea hil zitzaidan, eta aldaketa beharra nuen. Txikitatik asko ikusi dut zirkua, baina ezinezkoa zela uste nuen... Norekin hitz egin behar da zirkua egiteko? Eta itxaron gabe, sortzea erabaki nuen. Garai hartan *Allí abajo* teleailean nengoen, eta soldata hori horretarako erabiltzea erabaki nuen. Azken finean, gure hizkuntzan eta gustatzen zaigunean egiten dut lan: gurasoek zoriontzen gaituzte, umeei gurekin argazkiak atera nahi dituzte... Oso esker oneko lana da, ni horrela zoriontsua naiz. Ez nuke sinatuko bestelako lanik orain.

Pandemiak ere ez du zuek geratzea lortu.

Pandemia garaian Arrasaten egon ginen hilabete eta erdiz. Albisteak eta egoera egun batetik bestera aldatzen zirenez (herrietako mugikortasun mugak eta abar) zirkua bi lekutan finkatzea erabaki genuen.

Zirkuaren munduan euskara erdigunera ekarri duzue.

Euskal Herrian zirkua egiten duen jende asko dago. Emanaldi propioak dituzte, baina zirku formatuan ez dago besterik. Gurea erakusleioa da artista askorentzat zentzu horretan. Gure Zirkua egonkortasun ekonomikoa ematen die artistei, astero-astero emanaldiak ditugulako. Dena den, buruhaustea ere bada zirkua, baina dena partekatzen dugu taldean: emanaldi proposamenak, karabanak, kamioia, karpa...

“Zirkuak gauza asko ematen ezinezkoa zela uste zenuen”

IKER GALARTZA | pailazoa

Iker Galartza (Amezketan, 1977) da Gure Zirkua proiektuaren kide eta sortzaileetako bat. Pailazoa eta aktorea izanik, gertutik jarraitu du magiaren mundua beti, eta euskarazko zirkua amestetik ogibide bilakatzera igaro da. Lezaman ekainaren 26ra arte egingo dituzte emanaldiak.



ten dizkizu: ena egitea"

*"Oso esker oneko lana
da, ni horrela zorionsua
naiz. Ez nuke sinatuko
bestelako lanik orain"*

*"Zirkua baserria
bezalakoa da: lan eta
antolaketa handia dago.
Gure Zirkua geratzeko
eta aldatzeko etorri da"*

*"Gure Zirkua ikustera
euskaldunak etortzen
dira, baina akaso
mundura atera beharko
da nozbait"*

**Belaunaldiartekotasuna ere bada
zuen ezaugarrietako bat.**

Bai. 47-48 urteko artistak ere baditu-
gu, Londresen, Japonian zein Los Ange-
lesen aritu dira zirkua egiten, eta euren
ibilbideko azken txanpa norbere herrian
egitea ederra da. Bestetik, gure neska-mu-
tilak ditugu, jolastera datozenak eta eman-
aldian ateratzen direnak gero.

**Ahalduntze prozesu bat eskaintzen
du Gure Zirkua, beraz.**

Bai. Ibonen alabak, Maddik, abestea
gogoko du, eta beste pauso bat egin du:
orain hasi da aitarekin batera hiru pieza
kantatzen. Gero nahi duena egingo du:
kazetaria, irakaslea edo iturgina, baina
bitartean goza dezala. Esperientzia ez zaio
ahaztuko!

**Lezama altxatu duzue karpa. Zerekin
egingo dute topo ikusleek?**

Gure Zirkuko poza, magia eta esentzia
mantendu behar dira, baina berritasunak
eskaini behar dira. Aurten, dekoratua
aldatu dugu. Eboluzioa bistakoa izan
arren, ez ditugu hasierako inozentzia,
maitakortasuna edo xarma galdu behar.

**Eta zer ez dute ikusiko? Karparen
inguruan eta atzean zer nolako bizi-
modua dago?**

Karpan ikusten dena Gure Zirkua
isla da: hemen elkarbizitza handia da-
go, dena egiten dugu elkarrekin. Oso
erreal da gure zirku bizitza, eta magikoa.
Hemen lan handia dago, baserria beza-
lakoa da: mantenu lan asko dago, en-
trenamenduak, janaria prestatzea... De-
na den, saiatzen gara asteburuak guretzat
ere berezi bilakatzen: ostiral gauetan pizza
afaldu, eta gaur brokolia. Antolaketa
handia dago: astelehen goizetan umeak
eskola eramateko antolatzen gara, edo
baten batek medikura joan behar badu...
Lasai-lasai gaudenean ere beti dago zer
hobetu.

**Gure Zirkua gain, udan, tailerrak
antolatzen hasi zarete. Bada harrobi-
rik.**

Bai. Umeekin behar dutenajolastea
da, esperimendu eta deskubritzea. Zir-
kuak gauza asko ematen dizkizu: ezin-
ezkoa zela uste zenuena egitea (kable
gainean ibiltzea kasu). Horrek ematen
duen konfiantza sekulakoa da. Musika
gehitzean, gainera, irudimena lantzen
dute, eta musika entzuten ikasi; eta az-
kenean, gauzak sortzen hasten dira. Es-
kola askotatik deitzen gaituzte.

**Duela bost urte erabaki zenuen
Gure Zirkua ametsa betetzea. Ha-
mar urte barru, zer gustatuko litzai-
zuke bilakatzea?**

Porrotzek behin hala esan zidan:
"Oso ondo, Iker! Baina orain honi eutsi
egin behar zaio!" (kar-kar). Gure Zirkua
izena horregatik jarri genuen. Biharko
egunean, 70 urterekin, berdin-berdin
etorriko naiz hona esketxa egiteko es-
katzen; edo agian ez didate utziko. Hau
geratzeko eta aldatzeko etorri da. Ka-
mioia izorratuko da, baina etorriko da
beste bat. Hobetzen jarraituko du, eta
gauza asko egiten. Gure Zirkua ikustera
euskaldunak etortzen dira, baina akaso
mundura atera beharko da nozbait: Zer-
gatiak joango dira trikitilariak Boisera eta
Gure Zirkua ez? Gure proiektua ibiltaria
da, beraz, zergatik ez!



Baserritarren Alkartea Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

*Pentsu
naturalak*

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO
EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI
Gorbea kalea, 5 Tlf. / Faxa:
48170 ZAMUDIO 94 452 29 10

JB Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra
Especializatea:
Xalra-lanak
Zoruak
☎ 944522910 - 665703312 - 652772016

**ZAMUDIO-DERIOKO
LURLANGILEEN ETXEA**
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

"Bartzelonan ikasitakoa Larrabetzura ekarri dut bueltan"

AMETS ZULUETA |
zinema-ikaslea

t: Gaizka Eguzkitza / a: A. Z.

Larrabetzu baserriz beteta dago eta horietako bi aukeratu ditu Amets Zulueta herriko gazteak bere Gradu Amaierako Lana egiteko. Zulueta zinemagintza ikasten dabil Bartzelonan eta apirilean sei egun eman zituen Larrabetzun *Bi baserri* film laburra grabatzen. Esperientzia gogorra bezain polita izan da.

Zergatik aukeratu Larrabetzu?

Bartzelonara joatea oso garrantzitsua izan da nire bizitzan eta aro horri itxiera emateko bueltako bidea egin nahi izan dut, hau da, Larrabetzun gauzatu nahi izan dut Bartzelonan ikasitako guztia.

Zer da *Bi baserri*?

Ipuin formatuko film laburra da, magiaz betea: hiru senide arbasoen baserrian hiru egun emango dituzte, familiaren profetia betetzen den ala ez ikusteko. Omenaldi txiki bat egin diet baserrian bizi diren familiei eta beren istorio guztiei. Bestalde, familiari buruz ere hitz egin nahi izan dut filmean: arbasoek belaunaldiz belaunaldi zer helarazten diguten. Familia garrantzitsuena dela ikasi dugu, baina askotan kalte egiten digu.

Zelan egin duzu proiektua?

Urtebeteko prozesua izan da, zaila eta luzea. Bartzelonatik dena antolatu nuen eta oporretan familia eta lagunak alde batera uzten nituen, filma planifikatzeko: baserriak lortu, baimenak udalean eskatu, larrabetzuar batzuk filmean agertzeko konbentzitu... Materiala lagun baten aitaren kamioi batean ekarri genuen. Eta lankide batzuek nire etxean egin zuten lo eta beste batzuek, erromesen aterpean. Abentura

"Omenaldi txiki bat egin diet baserrian bizi diren familiei eta beren istorio guztiei"

handia izan da, oso punkia eta polita aldi berean. Guztira, 25 lagunok osatu dugu lantaldea eta eskerrak eman behar dizkiet guztiei gogor egin dutelako lan. Gainera, Larrabetzuko jendeak izugarritzko laguntza eman dit.

Zelan lortu zenituen baserriak?

Filma Agarre auzoan grabatu genuen, Ana eta Begoren baserrian; eta beste zati bat Sasikoetxe baserrian, Josefinaren, Agustinen eta Agusenean. Berreziki haiei esan behar diet eskerrik asko, eman dizkiguten erraztasunak eta konfiantzagatik. Maitagarriak izan dira. Eta Agustin filmean agertuko da (kar-kar).

Zer deritzozu esperientziari?

Polita, desberdina. Oso pozik nago. Azken urtean galdera hau behin baino gehiagotan egin diot neure buruari: "Zelan joango gara 25 lagun Larrabetzura sei

"Filmatzea gogorra izan da, baina gauza asko ikasi dut eta jende askorekin ibili naiz"

egunean grabatzera?" (kar-kar). Gogor egin dut lan, gauza asko ikasi dut, jende askorekin ibili naiz eta filmatzea oso berezia izan da. Oraindik muntatu barik dago, baina hiru urtean Bartzelonan ikasi dudana Larrabetzura ekarri dut bueltan. Eta horrek pertsonalki bete egiten nau.

Noiz ikusi ahal izango dugu filma?

Udan muntaketa bukatuko dugu. Gus-tatuko litzaidake filma luzeagoa izatea, baina askoz jota 16 minutu iraungo du, zinema-jaialdietan hala eskatzen dutelako. Eta *Bi baserri* jaialdiz jaialdi eraman nahi dugu. Larrabetzun eskaini nahi dugu, noski; eta leku handi batean ezin bada egin, gutxienez, parte hartu dutenei erakutsi nahi diegu. Niretzat zirraragarria da Agustinek eta Mariteren emaitza ikustea. Baina ez dakit hori zehatz-mehatz noiz egingo dugun.



Larrabetzu, hurbil

Amet's Zulueta (Larrabetzu, 2001) betigustatu izan zaio zinema, txikitatik. Gaztetan, aktore ibili zen eta film labur batzuk grabatu zituen lagunekin. Hamazortzi urte bete zituenean, aldiz, zaletasuna ogibidetzat hartzea erabaki zuen eta Bartzelonara joan zen zinema-zuzendaritza ikastera. "Film laburretako lagun askok Bartzelonan ikasi zuten eta hara joatea gomendatu zidaten. Aukera ona iruditu zitzaidan eta horretan nabil, Larrabetzuren eta Bartzelonaren artean; dena dela, nahiz eta urte osoa Bartzelonan eman, Larrabetzu hurbil sentitu nahi dut", esan digu.

Larrabetzu utzi eta Bartzelonara joan izana "gogorra" izan zen, bera gaztea zelako eta herri biak erabat "desberdinak" direlako. "Lagunak ez nituen gertu, euskara ere ez... Baina apurka-apurka moldatu egin naiz. Eta zorionez, zinema-eskolan nire egoera

bizi izan duten ikaskide gazte asko eta asko daude: kanpotik etorritako hainbat lagun, etxetik urrun egotea... Eta babesa eman diogu elkarri. Oro har prozesu naturala izan dela esango nuke".

Etorkizuna, zabalik

Ametsek hiru urte daramatza Katalunian eta aurten bukatuko du karrera. Hurrengo urteetan han jarraituko du ziur asko. "Karrera nahiko praktikoa izan denez, teoriarik sakondu nahi dut, zinema ikasten jarraitu nahi dut. Aktorea izateko grinarik ez dut, hori ahaztuta dut, zuzendaria izan nahi dudala argi daukat eta, horretarako, gehiago ikasi beharko dut. Eta gero gerokoa... Etorkizunean, ez dakit zer egin nahi dudana, zabalik nago. Euskal Herrian industria txiki bat sortzen dabilta eta hemen lan egitea gus-tatuko litzaidake. Baina ez dakit".

HEGAN

egiteko aukerak

POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.

**BATXILERGOA ETA
LANBIDE HEZIKETA**

Eman izena!
www.txorierri.net



Txorierriko nerabeen familiek aktiboki parte hartu dute familien eskolan

Nerabezaroa. Hitz horrek emozio nahasiak eragiten ditu: poztasuna, frustrazioa, oldarkortasuna, malenkonia, bizipoza... Garai horretan nerabeek gorputz, harreman eta testuinguru aldaketa esanguratsuak jasaten dituzte. Prozesu konplexu horretan, nerabeek osasun mentalarekin erlazionatutako arazo batzuk garatzeko arriskuan dira: depresioa, menpekotasunak, elikadura-jokabidearen nahasmenduak, autoestimu arazoak, eta abar.

Azken hilabeteetan, gazteei buruzko hainbat albiste kezkarri agertu dira: teknologien erabilerari eta abusuari buruzko artikulatuak, baita gazteen arteko lehen kontsumoei eta jokoarekiko mendekotasunari lotutako berriak ere. Egoera horren aurrean nerabeak ez ezik familiak ere galduta sentitu daitezke.

Zelan lagundu dezake familiak?

Laguntzeko lehenengo pausua izan daiteke arazoaren jatorria ezagutzeari: substantzien abusuak, sare sozialen

erabilera konpulsiboa, online bidezko jokoa eta eremu afektibo-sexualeko harreman-zailtasunak. Horiek bizi-etapa honetako arazoak dira ala benetako ondoeza saihesteko bideak?

Oso garrantzitsua iruditzen zaigu gai horiek ahalik eta esparru gehienetatik jorratzea. Horregatik guztiagatik, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko Esku-hartze Komunitarioko Zerbitzuak, urteko lehen seihilekoan, tailer batzuk egin ditu eskualdeko nerabeen familientzat.

Familientzako tailerrak

Tailerrak ematen aritu diren adituak saiatu dira gaiaren inguruko informazioa eskaintzen familiek haien seme-alabak ulertu ditzaten. Gainera, jarraibide praktikoko batzuk eta aholkuak eskaini dizkie, gai hauek kudeatu ahal izateko. Eta azkenik, haien kezak eta galderak argitzen saiatu dira. Zehazki, honako hauek izan dira lantutako gaiak:

Urtarrilaren 26an lehen kontsumoen gaia jorratu genuen eta 34 familiak par-

te hartu zuten. Martxoaren 10ean afektibitatearen eta sexualitatearen inguruan lan egin genuen. Martxoaren 16an, teknologia berrien erabilerari eta abusuari buruz hitz egin genuen. Eta Aste Santuko etenaldiaren ondoren, nerabezaroan osasun mentalak duen garrantziari buruzko tailerra egin genuen (apirilaren 27an). Beste tailer batzuk ere aurreikusita zeuden, baina atzeratzea erabaki zen. Adibidez, maiatzaren 10erako elikadura-portaeraren nahasmenduei buruzkoa aurreikusita zegoen, baina pertsona gutxi izena eman zutenez, bertan behera geratu zen.

Orokorrean, tailerrak entzule guztien gustukoak izan dira, parte hartzea kasu gehienetan oso handia izan da eta eskertu egin dute ideia praktikokoak jasotzea, eta adituen gertutasuna azpimarratu dute. Tailerren arrakasta ikusirik, datorren urteari begira berriro ere familiekin tailerrak egitea pentsatu dugu. Datorren urtean, zer gai nahiko zen nuke lantzea?



Sare sozialak, lan munduko katapultak

Funtzio ludiko eta pertsonalez gain, sareak oso tresna erabilgarriak dira interesak eta gaitasunak transmititzeko eta enpresentzat ikusgai izateko

Gaur egun, teknologia ezinbestekoa da eguneroko bizitzako hainbat esparrutan: izapide administratiboak egiteko, giltza edo sinadura elektronikoa gisa erabiltzeko... Digitalizazio-prozesu horretan, sare sozialek gero eta pisu handiagoa hartu dute mundu osoan, eta enpresamunduan funtsezko tresnak izatera iritsi dira, bai euren jarduera edo produktuak sustatzeko, bai bezero eta langile berriak erakartzeko.

Eta, txanponaren beste aldean, lana bilatzen ari direnentzat edo beren karrerari bultzada berri bat eman nahi diotenentzat, sare sozialak funtsezko tresnak dira euren burua ezagutarazteko eta enpresekin edo euren sektore profesionaleko beste pertsona batzuekin harremanetan jartzeko, hori "Networking" izenez ezagutzen da.

Sare sozialak helburu profesional batekin kudeatzeak, ordea, bere erronkak ditu, eta ez da nahikoa horiek ondo eza-gutzea eremu ludiko edo pertsonalean. Hori oso gogoan dute, EGAZ Txorierrin (Derio, Larrabetzu, Lezama, Loiu, Sondika eta Zamudioko udaletako Ekonomia eta Enplegua Sustatzeko Zerbitzuan) pertsonak eurengana joaten direnean orientazio bila.

Horrela, lana bilatzeko edo lan-egoea hobetzeko pertsonekin lantzen diren tresnen artean, sare sozialek leku garrantzitsua dute. Identitate digitalaren eraikuntzatik hasita, hau da, sareak nola bihurtu lan-arloarekin lotutako interesak eta gaitasunak erakusteko tresna.



Eta, jakina, nola atera ahalik eta etekinik handiena lanbide-arloko beste profesional edo enpresa batzuekin harremanetan jartzeko.

Besteak beste, garrantzitsua da jakitea zein sare sozial diren bereziki eraginkorrak arlo profesionalean, eta Twitter, Facebook eta LinkedInetik harago beste sare batzuk daudela jakitea. Eta, jakina, partekatzen den profila eta informazioa sare sozial bakoitzaren ezaugarrietara eta helburu profesionaletara egokitzea.

Helburu profesionala argi izatea eta argitalpenen bidez islatzea, esparru profesionalari lotutako taldeak edo enpresak jarraitzea eta horietan parte hartzea dira norberaren burua ezagutzera emateko

gakoetako batzuk. Eta, batez ere, profila aktibo mantentzea: eguneratzeak sarri egitea, eta artikulatuak, argitalpenak eta informazioak partekatzea, betiere harremanetarako eta esparru profesionaletarako interesgarriak badira.

Sare sozialetan partekatzen dugun guztia, harremanetan jartzen garen pertsonen gain, gure marka pertsonal digitala eraikitzen doa. Ondo kudeatuta, marka digitalak pertsonaren ezagutzak, ezaugarriak eta gaitasunak transmititzeko aukera ematen du, curriculumak islatzen duenetik harago, enpresek horiek ikusteko modua izan dezaten.

Horregatik, EGAZek hausnarketa-prozesuan laguntzen die pertsonen argi izan dezaten zeintzuk diren sare sozialetan islatu nahi dituzten ezaugarriak, eta zein den hori egiteko modurik egokiena. Ilde horretan lan egiten da, adibidez, Europako Gizarte Funtzarekin batera antolatutako Hazilan ekimenean. Ekimen horri esker, goi-mailako ikasketak dituzten 20 eta 44 urte bitarteko pertsonen prestakuntza-ekintzak egin ditzakete gaitasun horiek hobetzeko, eta eskualdeko enpresekin zuzeneko harremana izan, profesionalak ez diren praktiken bidez.





Larrederreko karobia

t/a: Iñaki Olabarrieta eta Jose Angel Mentxaka

Karobiak gure mendi eta bazterretan karea lortzeko erabili ziren XX. mendearen erdialdera arte. Euren aztarnak oraindik aurkitu ditzakegu hainbat lekutan. Karea modu industrialean ekoizten hasi zenean, eraikuntza kurioso hauek ahaztuz joan ziren. Eta zer dira? Edo ziren? Orokorrean goitik beherako harrizko "hodiak" dira. Denak antzeko tamaina zuten: 4 edo 5 metroko altuera eta 1,5-2 metroko diametroa. Goitik zabalik zeuden eta behean zulo bat zeukaten.

Lana gehienetan auzolanean egiten zen, beso asko behar ziren eta: alde batetik, kareharria, **kaltzio karbonatoa**, hurbildu behar zen karobietara; eta bestetik, egurra. Goiko zulutik egurra sartzen zen. Beteta zegoenean su ematen zitzaion eta egurra kiskali eta hormak berotu ahala, 900 gradutan, egurrak beherantz egiten zuen goiko aldean lekua utzita. Berrogeita hamar edo 60 cm-ko alturako kare-harria botatzen zen ondoren, eta beherantz egin ahala, beste horrenbeste egur, beste horrenbeste kareharri... Horrela behar beste kare lortu arte. Karea beheko zulutik ateratzen zen eta hoztu ondoren banatu egiten zen.

Karobiak



Ozerinmendiko karobia (Zeanuri)




Arraiotzeko karobia



Larrederreko karobia



Urkiolako karobia



Ibilbide proposamena

7,5 km-ko ibilbidea da, Gorbeia inguruan, aproposa umeekin egiteko. Areatzatik Pagomakurreko bidea hartuko dugu, eta hara heldu baino kilometro bat lehenago Larrededer atseden-lekua eta aparkalekua aurkituko dugu. Leku ederra. Oinez hasiko gara Pagomakurrerantz. Laster, bihurgune handiaren ondoren ezkerretik hasten den pista hartuko dugu. Pistari jarraitu eta beste gurutze batera heltzen garenean ezkerretara egin beharko dugu. Nahi izanez gero,

eskumara egin dezakegu: 200 metrora Arratiako begiratoki ederrak dago –behintzat, zuhaitzak gehiago hazten ez badira–. Atzera eginez laster aurkituko dugu karobia, ondo seinalizatuta eta berria. Bideari jarraituz zirkulua itxia besterik ez zaigu falta.

Karobiaz gain, ibilbidean topatu beharko ditugu iturri ederrak, elurzulo ikusgarriak eta gure arbasoek orain dela 4.000 urte eraikitako trikuharriak. Bidaia ona izan!

Lortutakoa kare bizia da, **kaltzio oxidoa**, eta bere propietateak urarekin nahastuz gero lortzen dira, **kaltzio hidroxidoa** bihurtzen denean. Hainbat gauzatarako erabiltzen zen, esate baterako, kortak, ganaduaren apatzak edo erromes asko pasatzen ziren ermitak desinfektatzeko. Soloan ere asko erabili izan da, desinfektatu eta ongari moduan (sarritan baserrien errentamendu-kontratuetan argi azaltzen zen soloetan zenbat kare bota behar zen). Asmaren eta baztangaren aurka ere erabili da medikuntzan. Morteroa egiteko edota baserriak zuritzeko. Arrautzak gehiago irauarazteko...

Gure herrietan karobiak egon badaude, edo bazeuden. Esango genuke herri bakoitzean gutxienez bat zegoela, Larrabetzun, Lezaman, Zamudion hiru gutxienez... Erandio eta Loiuaren artean Karabizu edo Karabezu mendia dago eta bere izena dela-eta igartzen da karearekin zerikusia duela. Izan ere, aspalditik lortu da bertan kare eta oraindik ikus daiteke karobia zegoen zuloa. Egon asko daude, guk Gorbeia inguruan dagoena proposatu dugu gure ibilaldirako.



“Gauza askori uko egin behar diet, baina emaitzek merezi dute”

ALAZNE ETXEBARRIA URIZAR | abiadura-lasterkaria

Sondikoztarra Euskadiko eta Bizkaiko txapelduna da 400 metroko lasterketan. Gainera, bigarrenaz hautsi du Bizkaiko errekorra: hori 35 urtean 55:90 segundokoa izan da eta duela gutxi Etxebarriak 55:70 segundo egin zuen; Bizkaiko txapelketan oraindik ere marka hobea egin zuen: 54,91 segundo.



t: Itxaso Marina Ondarroa

“Egia esan, 55 segundotik beherako marka egitea ezinezkoa zela pentsatzen nuen. Ondo ibiltzen nintzen entrenamenduetan eta entrenatzaileak ere adorea ematen zidan; hala ere, ez nuen sinesten... Neka-neka eginda amaitu nuen lasterketa, baina poz-pozik”, kontatu digu Bizkaiko errekorri buruz galdetuta.

Korrika egitea txikitatik gustatzen zaio. “Hasieran judoa egiten nuen eta gero atletismoan saiatu nintzen eskolan. Urdanetan hasi, eta handik Bidezabal klubera (Durango) joan nintzen, eta klub horretatik gaur egun nagoen klubera: Atletico San Sebastianera. Atletismoak ha-

sieratik erakarri ninduen, esan moduan, korrika egitea gustatzen zaidalako. Taldea ere ezinbestekoa da: elkarri lagundu eta exijitzen diogu eta hori oso inportantea da. Bestalde, sakrifizio handiko kirola da, baina lagundu dit ordenatuagoa izaten, kirola eta ikasketak, eta orain lana, uztartzen ikasi behar izan dudalako”.

Hainbat modalitate daude atletismo barruan: lasterketak, altuera- eta luzerajauziak, jaurtiketak, ibilketa... “Hasieran denetarik egiten nuen arren, batez ere abiadura lantzen hasi nintzen pixkanaka-pixkanaka (100 eta 200 metro). Harik eta orain dela bost urte konturatu nintzen arte 400 metroetan aukera handiagoak nituela. Proba gogorra da 400 metrokoa

Datu batzuk

Hogeita bost urte ditu eta atletismoan 2007an hasi zen. Ibilbide oparoa izan du harrezkero: hainbat lasterketan parte hartu du, eta hainbat lasterketa irabazi. 2018an, Bizkaiko txapelduna izan zen 200 metroko lasterketan eta absolutu kategorian, eta 2020an, Euskadiko txapelduna, 400 metroko lasterketan eta absolutu kategorian. Gainera, Espainiako txapelketan, 4 x 400 errelebo-lasterketan bigarrena gelditu zen Atletico San Sebastian klubarekin. 2021ean, bestalde, Euskadiko txapelduna izan zen 400eko lasterketan aire librean zein pista estalian, eta aurten Euskadiko zein Bizkaiko txapela eraman du. Gogor eta gogoz entrenatzen da hain emaitza onak lortzeko. Aipatu digunez, 200 metroko lasterketan berriro saiatzeko asmoa du.

eta atletok badakigu sufrutuko dugula; horregatik kostatu zitzaidan erabakia hartzea. Baina niri falta zait 100 eta 200 metroetako abiadura-lasterkariak duten lehertze-puntu hori eta ikusi nuen askoz hobeto egiten nituela 400 metroak”.

Bere esanetan, oinkada da bere indarguneetako bat. “Oso oinkada zabala dut, eta teknika ona 400 metroetarako. Badakit belauna apur bat gorago igo behar dudala –entrenatzaileak behin baino gehiagotan esaten dit–, baina hobetuz joan naiz denborak aurrera egin ahala”. Atleta ona da, etorkizun handikoa, baina meritua bere entrenatzailearena dela esan digu. “Jose Luis Garcia da, Bizkaiko historiko bat. Gainera, nik baino lehen Bizkaiko errekorra zuten atleta biak ere entrenatu ditu: Nerea Azkarate eta Cristina Castro. Jose oso saiaturia da eta egunero dabil hor, zuri exijitzen... Beti modu onean. Ez diot huts egin nahi eta presio hori dut... Nolanahi ere, oso gustura nago bai berarekin, bai taldekideekin”.

Pista egokia behar

Etxebarria kexu azaldu da, Txorierrin ez dagoelako entrenatzeko pista egokirik. "Pista bakarra Zamudion dago, baina porlanezkoa da, eta zapatila il-tzedunak jantzita entrenatzen garenez, ezin gara hara joan, tartana duen pista behar dugulako; Zamudioko pistak bakarrik denboraldiaurrean entrenatu gaitezke, saioa zola lauко zapatilak jantzita egiten dugu eta. Pena da, izan ere, Txorierrin oso atleta onak ditugu eta kanpora joan behar dute". Horrezaz gainera, azaldu digu Bizkaian ez dagoela pista estalirik. "Eguzki betean entrenatu behar dugu, haizea, hotza, beroa, euria, txingorra... dagoela. Eguraldi txarra badago, amak askotan esaten dit entrenatzera ez joateko, eta nik txantxetan erantzuten diot: *Ados, baina gero Bizkaiko errekorra egitea nahi izango duzu, ezta?* (kar-kar). Gasteizen, esaterako, modulu txiki bat dute, eguraldi txarra dagoenean bertan entrenatzeko".

Iritzi berakoa da Leire Barcia sondikoztarra. Bera ere abiadura-korrikalaria da, eta Beste Bira Txorierriko atletismo taldearen korrikalari ohia. "Maila handia erakutsi dute Txorierriko atletak eta lastima da entrenatzera beste udalerribatuetara joan behar izatea: ni, esaterako, astean bost aldiz joan behar izaten dut Fadurara. Kirola egiteaz gainera, ikasten edo lanean gabilta eta askotan denbora luzea ematen dugu joan-etorrietan. Nire ustez, inguruan pista egokia atonduz gero, askok eta askotan erabiliko genuke".

Motibazioa, marketan

Oso entrenamendu zorrotzak egiten ditu astelehenetik zapatuta, ordu bi edo ordu bi eta erdi egunero. "Beroketak egiten ditugu, teknika, hesiak saltatu, serieak, gimnasioa... Diseinatzailea naiz eta lanetik ateratzen naizenean entrenatzera joan beharra dut, Zorrotzara. Egundua osoa ematen dut etxetik kanpo. Ikasketak, lana eta kirola ere uztartu behar izan ditut...". Eta gauza askori uko egin ere bai. "Esate baterako, parrandan joateari edo hainbat plani. Izan ere, lehiaketaren aurreko eguna sakratua da eta ezin ditugu



Barcia Ezkerraldea klubean dabil gaur egun. "Gustura nengoen Beste Biran, baina berton ez zegoen lehiatzeko korrikalari nahikorik eta Ezkerraldea taldearen proposamena onartu nuen". Hala ere, monitore jarraitzen du Beste Biran. "Ondo dago ekimen moduan, atletismoa umeei hurbiltzeko. Entrenamenduak egiten dira Larrondon, Derion eta Zamudion. Nolanahi ere, atletismoa ez da bakarrik korrika egitea, saltoak ere egin daitezke, pisua jaurti... eta inportantea da jendea horretaz jabetzea".

Lagunak dira Etxebarria eta Barcia, eta Bizkaiko Txapelketan biak igo ziren podiumera 400 metroko lasterketan. "Hirugarrena izan nintzen ni. Ez nuen espero, aurreko astean belauneko arazoak izan nituen eta. Gainera, nire marka hobetu nuen: 01:01 minututik 01:00 minutura". Bestalde, 4 x 400 errelebo-lasterketa irabazi zuen bere taldearekin.

ibilaldi luzeak egin edo mendira joan... Emaizengatik merezi du. Emaizarik ez badago, frustragarria da, baina pixkanaka-pixkanaka gauzak lortuz joaten zara eta pentsatzen duzu: *Bueno, honengatik entrenatzen dut hainbeste eta egiten dut hain esfortzu handia*". Denbora libre duenean denetarik egitea gustatzen zaio. "Batez ere txakurrarekin mendira joatea, ibilbideak egitea, bidaiatzea... Artearekin zerikusia duen guztia ere gustatzen zait, margotzea eta abar".

Motibazioa marketan topatzen du, eta ariketak dakarren liberazioan. "Serie

"Ez diot entrenatzaileari huts egin nahi eta presio hori dut... Nolanahi ere, oso gustura nago"

"Badakit momentu batean edo bestean ezin izango diodala guztiari eutsi eta kirola utzi beharko dudala"

bat ondo egiten duzunean pentsatzen duzu: *Hara! Zein ondo! Hau bai poztasun handia!* Sentsazio hori da, eta egindako lana jendaurrean erakustea eta zure burua hobetzea; zure marka ahalik eta gehien hobetzea". Maniak ditu korrika egiteko orduan. "Atleta guztiek dituzte maniak. Nik, adibidez, zapatiletako kordelak lotzen eta korapilatzen ditut, solte gelditu ez daitezke. Halaber, ez zait gustatzen eskumuturretan ezer eramatea... Eta iskio-na kolpatzen dut, berotu dadin".

Aitortu digu atletismo munduan ez duela erreferenterik eta bere helburua marka jaisten jarraitzea dela. "Nire xedea ez da txapelketa hau edo bestea irabaztea, edo Europako txapelketan parte hartzea... Azken batean, lana dut eta horrek asko mugatzen nau: bakarrik kirolean dabilen atletak, berriz, goizean eta arratsaldean entrenatu ahal dute, eta nahi beste deskantsatu... Nik ez dut hori... Eta jakin badakit momentu batean edo bestean ezin izango diodala guztiari eutsi eta kirola utzi beharko dudala. Triste da, baina ez dut inongo laguntzarik... Hau ez da futbola; ezin da atletismotik bizi. Gustatuko litzaidakeela? Jakina, baina oso zaila da. Entzunda daukat lehen Bizkaian oso atleta onak zeudela eta beka onak ematen zituztela; orain, aldiz, ez dago dirurik atletismorako. Jasotzen dudan laguntza apurra nire klubak ematen dit eta bakarrik daukat zapatilak eta joan-etorriak ordaintzeko. Bestalde, Basque Team Fundazioaren dirulaguntzak goi-goian dau den kirolarientzat dira".



Txorierrin gure artean euskeraz berbaz

txori tokia



TXORIERRIN UDAL
EUSKALTEGIA



UDAKO IKASTAROAK (UZTAILEAN ETA IRAILEAN)

NOIZ	HELBURUA	ORDUTEGIA	ORDU KOPURUA	IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA
Uztailaren 1etik 28ra	Maila guztiak	9:00-14:30	90 ordu	Ekainaren 24a
Irailaren 1etik 28ra	Maila guztiak	5 ordu egunero	90 ordu	Uztailaren 15a
Irailean 12tik 23ra	MINTZAMENA B1-B2-C1	3 ordu egunero	30 ordu	Uztailaren 15a
Irailaren 12tik 28ra (1)	B1-B2-C1	9:00-12:00 edo 16:00-19:00	39 ordu	Ekainaren 24a

(1) Deialdi itxira joan diren ikasleentzat baino ez. Lehen deialdira aurkeztu diren ikasleak izan behar dira, idatzian edo ahozkoan gainditu ez dutenak; baita, lehen deialdira ezin izan direnak joan ekaina arte ez dute-lako lortu maila.



Herriko Plaza, 3 - DERIO



Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38



euskaltegia@txorierrri.eus

San Joan sua berriro piztuko da Sondikan



Sondikoztarrek ekainaren 23tik 26ra bitartean ospatuko dituzte San Joan jaiak. Jaiak ohi bezala disfrutatzeko gogo bizia dugu herritarrok, normaltasunez, eta hori dakitela, Sondikako Udalak eta herriko elkarteek ahalegin handia egin dute, "bi urteren ostean herritarrei jai-egitarau erakargarria baino erakargarriagoa eskaintzeko, adin eta gustu guztientzat, herritar guztiengana ailegatu nahi dugu eta", azaldu digu Estibaliz Atxalandabaso kultura-zinegotziak. Jai-egitarauak, gainera, nobedadeak dakartza.

Aurreko urteetan moduan, udalak Sondikako kirol- eta kultura-elkarteekin batera prestatu ditu jaiak lotutako ekintzak. "Elkarteek parte-hartze handia izan dute, eta, bestalde, garrantzia eman behar diegu pandemia-garaian izan duten

geldialdiagatik". Txupina eguean, ekainak 23, botako dute herritarrek jai-giroarekin bat egitera gonbidatzeko. Ondoren, talo txikiak dastatuko dira, eta, Agility Euskadi klubak antolatuta, txakurren erakustaldia egingo da lehen aldiz. "Eta gauean, argi-zuziak -txikiek, kandela argidunak- eskuan ditugula, liburutegitik

kalejiran irtengo gara San Joan sua piztera. Kalejira batukada-talde batek girotuko du. Ohiko ekintza da eta ziur nago San Joan sua guztiok batera berriro piztea oso hunkigarria eta berezia izango dela". Agertokira Gozategi musika-taldea eta Dj Alex igoko dira, "gaueko sua" piztuta mantentzeko.

Ekainak 23, eguea

- 18:00 Txupina eta zapiak banatzea, Gorabideren laguntzarekin.
- 18:15 Talo txikiak dastatzea.
- 19:30 Txakurren erakustaldia, Agility Euskadi klubak antolatua.
- 22:15 Argi-zuziak banatzea liburutegian.
- 22:30 Kalejira, Batu-klang perkusio taldeak girotua, eta San Joan sua.
- 23:30: Kontzertuak: Gozategi + Dj Alex.

Ekainak 24, barikua

- 11:00 Kalejira, Ipar Elaiak txistu-taldeak girotua.
- 12:00 Meza.
- 11:30-14:00 Haurrentzako jolas-parkea, Ikurrina enparantza.
- 12:30-15:30 El Despiste fanfarrea (zahar-etxetik).
- 13:30 Jubilatuentzako kopaua.
- 17:00 Gimnasia erritmikoaren erakustaldia, Dana kirol-klubak antolatua.
- 17:30 Pala erakustaldia, Gorondabeko kiroldegian. Beti Galdu elkartearen eskutik.
- 18:00 Kantu Kolore, San Joan landan.
- 18:30 Txerriak dastatzea.
- 19:30 Tiragoma lehiaketa.

"San Joan sua guztiok batera berriro piztea oso hunkigarria eta berezia izango da"



autoeskola SONDIKA

Gidabaimena eskuratzeko izapideak
Irakaskuntza teorikoa, praktikoa eta ikus-entzunezkoa

Mateo Bidaurreaga 2
Telefona: 94 471 00 10
48150 SONDIKA Bizkaia

Iturriondo plaza, 2 (goia)
Telefona: 94 445 90 67
48007 Zurbaránbarri - Bilbo



GELTOKI

TABERNA-KAFETEGIA

Plater konbinatuak
Lunchak

ONDO PASA JAIETANI!

Erremente, 8
48150 SONDIKA
944 532 592
652 732 584

Jai-egitaraua



–23:30 Kontzertuak: Huntza + Dj Ibai Sanchez.

Ekainak 25, zapatua

–10:00 Sukalki txapelketan izena ematea, Hegalariak taldearen txosnan.
–11:00 Pikera bizikletaz igotzea.
–11:00 Kalejira, Ipar Elaiak taldeak girotua.
–11:30-14:00 Haurrentzako jolas-parkea, landan.

–12:00-14:00 Master Chef Txiki.
–14:00 Sukalkia aurkeztea.
–16:30 Mus txapelketa, Hegalariak taldeak antolatua.
–17:30 Iron Team II (8 urtetik 12 urtera bitartekoentzat).
–18:00 "Humor amarillo", (13 urtetik 18 urtera bitartekoentzat).
–18:00 Balkoi apainduen lehiaketaren

sariak banatzea, Udalbatza aretoan.

–18:30 Tortilla txapelketan izena ematea, Sondika klubaren txosnan.
–19:30-20:30 Hirukoak jaurtitzea, Goron-dabeko kiroldegian.
–20:00 Tortillak aurkeztea.
–22:00 Kontzertua: STR
–24:00 Kontzertua: Doctor Deseo + Dj Dantzatzeko Prest.

Ekainak 26, domeka

–10:00 Sondikako II. Herri Lasterketa.
–11:00 Kalejira, Ipar Elaiak txistu-taldeak girotua.
–12:30-15:30 El Despiste fanfarrea.
–13:00 Motozaleen elkarretaratzea: Txoribikers eta Mapatxe. Miniak eta antzinako autoak.
–14:30 Kultura- eta kirol-elkarteen bazkaria, Sondika klubak antolatua.
–17:00 Igel-toka solidarioa (Friedreicheko ataxia).
–18:00 Adinekoentzako askaria, jubilatuen etxean.
–19:00 Dantzen alardea, Gorantzaileak taldearen eskutik.
–21:00 Mejico Lindo mariatxiak.
–22:30 Jaiak amaitzea.

Bariku goizean kalejira egongo da, meza eta haurrentzako jolas-parkea. Fanfarre batek herriko txokoak girotuko ditu. "Fanfarrea zahar-etxetik aterako da barikuan zein domekan, jai-giroaz han daudenek ere goza dezaten". Eguerdian jubilatuentzako kopaua izango da, eta arratsaldean, gimnasia erritmikoaren eta

palaren erakustaldia. Kantu Kolorek ikuskizuna egingo du, eta txerriak dastatu ahalko da. Tiragoma lehiaketa izango da, eta Huntza taldeak eta Dj Ibai Sanchezek girotuko dute gaua.

Zapatua ekitaldiz beteta etorriko da goiz-goizetik. "Sukalki eta tortilla txapelketak antolatu dira zapaturako. Ohiko

txapelketak dira, jendetza batzen dutenak eta egun osoa lagunekin kalean, landan, ematea ahalbidetzen dutenak, pandemia baino lehen moduan; disfrutatzea, azken batean". Gainera, antolatzaileek erronka bota die sondikohtarrei: Pike bidea –% 15eko malda– bizikletaz igotzea. "Lehen aldiz egingo dugu eta familia osoa-



FISIOTERAPIA
JARRERA-BERREZIKETA
ESKU-TERAPIA

MITXINE, 3
48150 SONDIKA
Tel. 94 453 92 00
Mugikorra 617 674 202
Mugikorra 688 601 871
fisiobarrondo@gmail.com



Sondikako euskara elkarte



Txorierri Et., 30
48150 SONDIKA

94 453 35 05
667 78 63 31



PEÑA ATHLETIC
BETI HARROBIA



Agertokira igoko dira, besteak beste, Gozategi, Huntza, STR eta Doctor Deseo

denbora luzea eman dute etxean eta batzuek oraindik ere beldurra diote kalera irteteari. Keinua egin nahi izan diegu eta mariatxien ikuskizuna antolatu dugu animatu daitezen”.

Etxera lagunduta itzultzea

Aurtengo jaietan, etxera lagunduta itzultzeko zerbitzua eskainiko zaie herritar guztiei. Zerbitzua eguenean, barikuan eta zapatuan emango da 00:00etatik 04:00etara. Udaletxearen ondoan ipiniko da informazio- eta topaketa-gunea, 22:00etatik aurrera, eta izena bertan eman beharko da. Zerbitzua baliatzen dutenak bi pertsonak lagunduta itzuliko dira etxera, eta lau ibilbide egongo dira parte-hartzaileen helbideen arabera. “Giro adeitsua egotea nahi dugu, erasorik gabe eta inongo indarkeria barik. Jai-gunean mezuak ipintzeko asmoa dugu, guztiok jabetzeko ezin dela inongo erasorik egon eta ezin dugula erasorik onartu. Sondikoztarrentzako eta bisitarientzako mezu hau da: disfruta dezatela, poztasunez, gogoz eta gainerakoekin adeitsuak izanez”.

rentzat da. Helburua ez da lehiatzea, ekin-tza dibertigarria egitea baizik. Oso polita izango dela uste dugu”. Kalejira ere izango da, haurrentzako jolas-parkea eta Master Chef Txiki ekitaldia.

Amaiera bikaina

Arratsaldean mus txapelketa egongo da, eta Iron Team. Azken hori zortzi urtetik 12 urtera bitarteko umeentzat da: bost lagunek taldea osatu beharko dute, eta bost probatan parte hartu. Probak dira igeri egitea, bizikletaz ibiltzea, patinetan ibiltzea, saskiratzeak eta korrika egitea. Izena ematea ekainaren 24ra arte egin daiteke liburutegian, eta hilaren 24an eta 25ean, Hegalariak taldearen txosnan. Hamahiru urtetik 18 urtera bitarteko gaz-

teek, bestalde, “Humor amarillo” saioko probei aurre egin ahalko diete. Hirukoak jaurtiko dira Gorondabeko kiroldegian, eta, STR musika taldeak jo ondoren, Doctor Deseok amaiera bikaina emango dio egunari.

Sondikako Herri Lasterketaren bigarren edizioa egingo da domeka goizean. Kalejira egongo da, eta motozaleen elkarretaratzea, Mapatxe (Sondika) eta Txoribikers elkarteen eskutik. Antzinako autoak eta miniak ere ipiniko dira ikusgai. Ohikoa denez, kultura- eta kirol-elkarteen bazkaria egingo da, eta igel-toka solidarioa: batzen den dirua Friedreicheko ataxia ikertzeraz zuzenduko da. Dantzen alardea ere izango da, Gorantzaileak taldearen eskutik. “Beste aldetik, adinekoek

Centro Dental
Txorierrri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462

Mitxine 7, behea - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885
www.cdtxorierrri.es

ORTODONCIA21

GALAISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3. SONDIKA

TXORIERRRI
Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

zuregandik gertu

ABIOLKULARITZA - TASAZIOA
ALOKATZEAK - ESKUALDATZEAK
SAIEROSKETAK
SEGUROS BILBAOREN AGENTZIA

Lzpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3. lonja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com

yedra
floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com



sondikako
bihotza



JOAN DEUNAREN JAIK

Sondikako jaiak

EKAINAK 23-26 JUNIO

DOCTOR DESEO - HUNTZA

GOZATEGI - DJ'S - MARIATXIS MEJICO LINDO

PIKE IGOERA - HERRI BAZKARIA - PUZGARRIAK

SAN JUAN SUA

Hitzaren sasoia

“Hitzez ekiteko garaia” lelopean, Euskaraldiaren hirugarren edizioa egingo da azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean. Aurtengo edizioaren helburu nagusitakoak izango dira kaleak berriro betetzea eta ariguneak areagotzea. Herrietako batzordeak dagoeneko hasi dira lanean, euskaraz hitz egitea inoiz baino errazagoa izan dadin, eta irailaren 29an epea zabalduko da belarriprestak eta ahobiziek izena eman dezaten.



t: Itxaso Marina

Aurtengo Euskaraldiaren dinamika orokorra aurreko bi edizioen berbera izango da: roletan oinarrituko da *–belarriprest* eta *ahobizi–* eta garrantzi handia emango zaie ariguneei. Nolanahi ere, helburu nagusietako bat izango da kaleak berriro hartzea. “Euskaraldiaren lehenengo edizioa ilusio handiz hartu zuten herritarrek eta parte-hartze handia egon zen. Jendearen pertzepzioa eta izandako oihartzuna oso onak izan zirela kontuan hartuta, horretara itzuli nahi da eta kalean giro hori berriro sortu”, azaldu digu Aitziber Argiarrro Sangronizek, Euskaraldiaren Txorierriko dinamizatzaileak. “Izan ere, bigarren edizioan ez genuen halako girorik eduki eta eragina izan zuen bai Euskaraldiaren inguruko pertzepzioan, bai parte-har-

tzean. Horregatik kaleak berriro hartu nahi dira eta Euskaraldia ariketa polita izatea eta bertan guztiok parte hartzaile bilakatzea”.

Herrian herriko batzordeak aktibatzea da lehen pausua. “Batzordeek garrantzi handia izango dute, herriaren ezaugarriak eta baliabideak zeintzuk diren inork baino hobeto ezagutzen dutelako. Inportantea da batzorde sendoak eta ahalik eta heterogeneoenak osatzea. Ideale

hau litzateke: euskararen inguruan da biltzanez gainera, euskararen sustapenarekin zerikusirik ez duten beste elkarte batzuetako kideek ere batzordeetan parte-hartzea. Euren partaide-tza ezinbestekoa da, alde batetik, Euskaraldiaren osotasuna erakusteko, eta bestetik, egitasmoa zabalagoa izateko eta jende gehiagorengana ailegatu dadin”. Batzorde batzuk dagoeneko hasi

Gazte batzordea

Euskaraldiaren aurtengo nobedadeetako bat da Txorierriko gazte batzordea osatuko dela. “Ardura berezia izan da gazteak nola erakarri Euskaraldiaren parte aktiboa izan daitezen. Herri batzuetako batzordeen batz besteko adina nahiko altua da eta, beraz, urrun gelditzen da gazteengandik eta euren nahietatik. Hori dela eta, pentsatu dugu Txorierriko gazte batzordea sortzea. Edonola ere, herriaren batek ikusiko balu euren gazte batzordea sortzeko baliabiderik eta

gaitasunik badutela, bada, ederto”. Gazte batzordea bakarrik gazteek osatuko dute eta haien ardura izango da herrietako batzordeena, baina Txorierriko eta gazteei zuzenduta. “Orokorrean antolatzen diren ekintzak oso onak izaten dira, baina batzordeetan gazterik egon ezean, zaila da gazteek ekintza horietara erakartzea, haiek behar dutelako eurek erabaki, egin, sortu... Gune hori sortu nahiko genuke gazteentzat eta udan ipiniko dugu martxan”.

“Kaleak berriro hartu nahi dira eta Euskaraldia ariketa polita izatea eta bertan guztiok parte hartzaile bilakatzea”



2018ko edizioan, Zamudion

*"Inportantea da
batzorde sendoak
eta ahalik eta
heterogeneoenak
osatzea"*

KORRIKAK utzitako energia soziala baliatu nahi du Euskaraldiak. "Euskararen aldeko lasterketak ekarritako ilusio-olatuak kutsatu du jendea eta gogotsu daude dinamika positibo batean KORRIKatik Euskaraldira jauzia egiteko. Baina ekintza biak bereizten dituztenak ere badaude. KORRIKA oso sasoi polita eta berezia da eta ilusioz betetzen ditu herritarrak eta herriak; Euskaraldiak, bestalde, konpromisoa eskatzen du eta lana ekartzen die batzordeei: norbanakoak lortzea, entitateetara jotzea, izen-ematea egiten laguntzen...". Aurrerago Euskaraldiari lotutako ekintza handia egingo da Txorierrin; hala ere, batzorde bakoitzak erabakiko du zein ibilbide hartzen duen. "Kontuan hartu behar da batzordeak aktibatu berri direla eta, gainera, uda datorrela; azken horrek herri batzuetan eragin handiagoa izango du beste herri batzuetan baino. Hortaz, batzordeek eurek erabakiko dute zerbait antolatzea merezi duen ala ez. Dena dela, ondo legoke alarma pizteko eta jendeak jakin dezan Euskaraldia nonbaitetik etorriko dela".

dira lanean. "Bilera egin da aurtengo nobedadeen berri emateko eta batzordearen unean uneko nolakotasuna aztertzeko: zenbat jende dagoen, partaide gehiagorik behar den...".

Bigarren pausua da entitateetara jotzea. "Xedea da aurreko edizioetan parte-hartu zutenak berriz erakartzea eta arigune moduan izena eman zutenek aurten ere izena eman dezatela. Ariguneak au-

rreko edizioan sortu ziren lehen aldiz eta kontuan hartu behar da zein egoeratan izan ginen. Esan moduan, pandemiak eragina izan zuen parte hartzean eta enpresak beste zeregin batzuetara begira zeuden; hau da, pandemiari nola aurre egin. Nire ustez, egoera hori gaintitzen hasita gaude eta aukera gehiago daude entitateek egitasmoarekin bat egin eta ariguneak sortzeko".

SUITE DELUX
25.
UNTEURREINA

dorelan
RE-ACTIVE

SUITE DELUX
Ohea aldatzen dizugu,
bizitza hobetzen dizugu

BILBAO Ledesma 32 | Tf. 944 145 875
DERIO Seminario | Tf. 944 545 147
LEIOA Av. Iparragirre 80 | Tf. 944 316 516

Atsedeen ezin hobea, kirolarientzat

www.suitdelux.com

Gogotsu eta indartsu dator

Larrabetzuko Gazte Eguna udako hitzordurik garrantzitsuenetakoa da eta, pandemiak eragindako geldialdiaren ostean, indartsu eta gogotsu itzuliko da abuztuaren 6an. Hori Bai gaztetxeko kideek egun osoko egitarau zabala prestatu dute, herritarrek zein bisitariek goza dezaten. Musika protagonista nagusia izango da.

Gazte Eguna gogotsu antolatu dute Hori Baiko kideek, baina zuhurtiaz ere bai. "Inguruko kasu askotan ikusten gabiltzanez, bi urtean ospakizun jendetsurik egin ezin izanak ekarri du jailetan-eta inoiz baino jende gehiago elkartzea. Bestalde, guk ere bi urte eman ditugu tamaina honetako egitaraurik antolatu gabe, eta horrek «bertigo apur bat» sentiarazten digu", azaldu digute. "Pandemia kolpe gogorra izan da gune autogestionatueterako bai diru-iturri aldetik, bai ekimenak antolatzeari dagokionez. Nolanahi ere, uste dugu horrek indarra ere ekarri ahal digula, zentzu guztietan".


Gazte Eguna uztailaren azken zapatuan ospatu ohi dute; hala ere, Hatortxu Rock uztailaren azken asteburuan egingo da aurten eta horregatik erabaki dute Gazte Eguna abuztuaren 6an egi-tea. Urte hasieran hasi ziren egitaraua lotzen. "Gutxi gorabehera betiko eskemari jarraitu diogun arren, urteetan ikasitakotik gauzak moldatzen saiatu gara. Era berean, ahalegindu gara gazteez gainera ekintzetan gainerako herritarrek ere parte hartu dezaten, eta beste herri batzuetako gaztetxeak eta gazte asanbladak elkartzeko lekua egiten. Beste aldetik, Gazte Egunean musikak beti izan du garrantzi handia eta aurten ere

izango du". Herritarren parte hartzea ere ezinbesteko du. "Beti bezala, hau guztia ezinezkoa izango litzateke haien laguntza eta elkartasunik gabe. Beti prestasun handia azaltzen dute antolakuntzarako, azpiegiturarako, txandak egiteko...".

Nahiz eta egitarauaren eskema aurreko edizioetakoaren antzekoa izan, aipatu digute eskaintza berri dela. "Batez ere musika-eskaintzari dagokionez, gaurkotasuna eta aniztasuna islatzen saiatu ga-



ra eta". Horrela, Kittu taldearen eskutik, Euskal Herriko gaurko eta betiko kantak entzungai izango dira eguerdian, eta arratsaldean elektrotzaranga batek girotuko du jaia. Kontzertua hurrengo talde hauek egingo dute: JMartina, The Lio, Crim eta Xiberoots. Horrezaz gainera, dj-ak izango



Crim taldea

*Helburua da Hori Baik
urterik urte egindako
lana ospatzea eta gune
autogestionatuen
garrantzia azaleratzea*



dira gau osoan: Little Martin Selektah, Dj Reimmy eta Malakias.

Erreferentea

Gazte Egunaren helburu nagusia da Hori Bai gaztetxeak urterik urte egindako lana ospatzea eta gaztetxeen eta gune

autogestionatuen garrantzia azaleratzea. Erreferentea da, eta bertan Euskal Herriko hainbat gaztetxetatik etorritako gazteak elkartu ohi dira. "Batetik, belaunaldiz belaunaldi egindako lanagatik egunak hartu duen erreferentzialtasuna oso garrantzitsua da. Bestetik, oso giro polita sortzen

Egitaraua

12:30 Kittu
14:30 bazkaria
Bazkalostean olinpiadak
19:30 Elektrotxaranga
22:00 Ekitaldia
22:30 Kontzertuak
Gau osoan zehar Djak

da herrian, herritar guztiek parte hartzen dutelako eta ekintzek ere horretarako aukera ematen dutelako. Gogo eta mimo handiz egiten dugu Gazte Eguna, eta hori emaitzan nabaritzen da".

Azkenik, Hori Baikoek argi utzi dute Gazte Egunean ez dagoela erasotzaileentzako lekurik. "Eguna guztiok gozatzeko prestatu dugu eta guztiok aletxoa ipini behar dugu giro ona egon dadin. Azkenaldian jai-giroan izaten ari diren askotariko erasoek kezkatzen gaituzte, eta bereziki adierazi nahi dugu ez dugula inolako erasorik onartuko, eta egonez gero, erantzuteko prest egongo garela".

TALDEA



GURENA

ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

ZURE NEURRIRA



**BABESPEKO
APARTAMENTUAK**
600 euro
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

**EGONALDIAK
EGOITZEAN**
egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com

Zumbathon solidarioa, Gure Señeak elkartearen alde



t: Joanes Camara, gizarteratze-teknikaria

Emaus Gizarte Fundazioaren PAI Bitartean eguneko zerbitzuak ahalegin handia egiten du komunitatearen parte aktiboa izateko, eta ahalegin hori fruitu gehiago ematen hasia da. Horrela, bada, urtebete eskasean Derion eta bere inguruetan hainbat ekintza antolatu ditugu, eta gure proiektuarekiko interesa erakutsi duen guztiarekin egin dugu lan. Dinamika horren baitan egindako azken proposamena Zumbathon izan da, zum-

ba-maratoi solidarioa hain zuzen ere. Gure zentroko erabiltzaileei hasiera-hasieratik gustatu zitzaizen ideia eta, ekitaldiari itxura emateko, ekin genion lanari.

Lehenengo eta behin, aztertu genuen lan solidarioa egiten duten Derioko elkarteak zeintzuk diren, eta Gure Señeak elkarteak ezagutu genuen; gaixotasun arraroa duten umeen alde lan egiten du Gure Señeak elkarteak. PAI Bitartean eguneko zerbitzuaren erabiltzaileek argi izan zuten merezi zuela elkartearekin lankidetzan aritzea, eta, espero genuen

moduan, atseginez onartu zuten proposamena. Helburu nagusia izan zen ekin-tzari gizarte- eta ongintzazko izaera ematea, eta, hortaz, ekintzaren sarrerei esker lortutako diru guztia Gure Señeak elkartearentzat izango zela erabaki genuen. Beste aldetik, Derioko Udalarekin ere harremanetan egon ginen, beste behin ere gure ekintzarekin bat egiteko. Era berean, jai-batzordearekin hitz egin genuen, proposamena jai-egitarauaren barruan ipin zezaten. Zumbathon maia-tzaren 14an egin zen.

Eragile guztiek egitasmoarekin bat eginda, eta zenbait bileraren eta prestatze-lanen ostean, egun handia heldu zen. Zumbathonen zaleek bi ordu bizi-biziak gozatu zituzten diziiplina hartako irakasleen eskutik. Irakasle horien artean izan ziren Maria, Olga, Gaby, Tony, Pablo eta Iratxe. Halaber, indarrak berritzeko gunea atondu zen, eta parte-hartzaileek eskura izan zuten ekintzarekin bat egin genuen elkartei buruko informazioa. Ehun sarrera baino gehiago saldu ziren eta guztira 510 euro batu ziren Gure Señeak elkartearentzat.

Parte-hartzaileei egitasmoan ibili izana eskertu nahi diegu Emaus Gizarte Fundazioko PAI Bitartean eguneko zerbitzuko langileok, eta espero dugu tarte atsegina pasatu izana. Derioko Udalari ere eskerrak eman nahi dizkiogu, berriro ere gurekin bat egin eta egitasmoa aurrera eraman ahal izateko laguntza eman izanagatik; Bizkaiko Foru Aldundiari, zerbitzuaren aldeko apustua egiten jarraitzen duelako; Mariari, ekintza antolatu izanagatik; eta gurekin tarte solidarioa partekatu nahi izan zuten profesional guztiei.

LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai lezagu Facebook-en

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86

639 57 98 48 - 639 58 25 47

Bizkaia

- Plater konbinatuak
- Ogitarakoak
- Kaxolak

BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

Milorria



t: Txiribita / a: wikipedia

Achillea millefolium. Bizialdi luzeko belarra da. Hirurogei zentimetroraino hazten da, eguzki betean, eta egunean itzalpean egon daiteke zenbait ordutan. Erraz ugaltzen da sustraien eta hezien bidez. Landa zabaletan topatu dezakegu, eta hostoak eta loreak jaso. Hostoak landarea osorik loratu denean hartu behar dira.

Sukaldean

Usain bizia du, oso berezia. Hostoak jan egin daitezke, eta barazkiak balira moduan prestatu, edo zopa egin. Era berean, gurina usaingozatzeko erabili daitezke.

Milorri-ardoa: Ardo gozo litro batean 10 g lore beratuko dugu bi astean. Iragaziko dugu eta otorduak baino lehen hartuko dugu gosegarri moduan.

Ezaugarri sendagarriak:

Infusioa har daiteke hurrengoak arintzeko eta hobetzeko: gaitz ginekologikoak eta hilekoaren kolikoak, urduritasuna (egunean hiru aldiz), digestioa, digestio-

kolikoak eta urdaileko hanturak. Jateko gogoa pizteko ere baliagarria da, eta gripeak jota bagaude, hurrengo errezeta hau prestatu dezakegu: ur katilu batean koilarakada bat intsusa-hosto ipiniko dugu, milorri adaxka bat eta menda adaxka bat; 10 minutuan izango dugu jalkitzen eta, ondoren, limoi baten ura

eta koilarakadatxo bat ezti gehituko dugu; infusioa egunean sei aldiz hartu dezakegu. Bestalde, zauriak orbaintzeko ere baliagarria da.

Infusioa egiteko: katilukada ur bakoitzeko 2-3 koilarakada milorriaren hostoak eta loreak ipiniko ditugu (txikituta). Infusioa egunean hiru aldiz hartuko dugu: bata goizean, baraurik gaudela, eta besteak, bazkaldu eta afaldu ostean.

Erabilera kosmetikoak

Ukendua erabili daiteke odoljarioak gelditzeko, odoluzkietarako eta zauriak, ultzerak eta ekzemak tratatzeko. Orbaintzailea eta emoliente ere bada.

Ortuan

Onura handiak ekartzen dizkio ortuari, lurreko nutrienteak, gehienbat potasioa, azkartzen ditu eta. Ondorioz, areagotu egiten dira alboko landareen usaina eta esentzia-olioak, bereziki usain-landareenak. Era berean, uxatu egiten ditu intsektuak.

Ez erratu

Milorria, zizare-belar limoiusaina eta mandaperrexila nahasi daitezke.

Kontraindikazioak

Ez dute hartu behar haurdun daudenek edo titia ematen dabiltzanek, ezta odola ez gatzatzeko botikak hartzen dituztenek ere. Era berean, ez da gomen-dagarria presio arterialerako eta buruko gaixotasunerako botikak hartzen dituztenentzat.

Landareak batzeko aholkuak

Orokorrean: hartu ondo ezagutzen duzuna; hartu neurritz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zerbait; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik, moztu ondo hazten jarrai daitezen; ez moztu loreen % 20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badira; hartu bakarrik erabiliko duzuna, geroago itzuli ahal zara, edo beste leku batzuetara joan; ez jaso gune babestuetan edo parke naturaletan.

Non: larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

Noiz: goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

Materialak: eskularruak, artaziak, paperezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...



Taxi horiak hegaz

t: Xabier Diaz / a: www.tecnalia.com

Blade Runner filmean, poliziaren autoak hegaz mugitzen dira Los Angeles futurista eta ilun baten eraikinen artean. *Radio Ga-Ga* bideoan, Queen taldea *Metropolis* delakotik zehar auto hegalar baten doa. Gure imajinario kolektiboan aspalditik dago auto hegalar baten ideia. 1910ean, Londresen izandako arkitektoen bilkura batean, jada aipatu ziren etorkizuneko etxeko terrazak horrelako autoen aparkaleku ideal gisa¹....

Zarata handirik ateratzen ez dutenak, elektrikoak, bertikalean aireratzeko eta lurreratzeko gai direnak, eraikinen artean erraz mugitzeko modukoak... Tek-

nologiak erronka horiei aurre eginez joan da eta badira esandako ezaugarriak betetzen dituzten prototipoak. Vertical Aerospacek VX4 prototipoa² dauka, eta Joby enpresaren prototipoa³ bidaia komertzialak egiteko ziurtagiriak lortuz doa (daukaten asmoa da 2024an ekoizten hastea). Bestalde, hainbat prototipo eta hegaldi egin ondoren, Airbusek esan du CityAirbus NextGen hurrengo urterako egongo dela prest. Eta gurean, Eurotaxia du Tecnaliak.

Hainbat tamainatakoak, batzuek hegazkin txiki baten itxura dute eta helizeak aurrera zein gora begira jarri daitezke; beste batzuek, berriz, ikusi ohi ditugun dronen itxura dute eta hainbat helize,

atik 16ra bitartean. Gehienetan ez da beharrezkoa gidaririk egotea eta batzuk urrunetik kontrolatu daitezke; gainera, pilotu automatiko sistema autonomoak garatzen hasi dira.

Dronak gogorazten dizkiguten era horretakoa da Tecnalia garatutakoa⁴. Lau beso ditu, bakoitza lau helizeduna, eta pertsona bat edo 150 kg-ra arteko kargak garraiatzeko gai da. 100-300 metroko garaieran hegaz egiteko diseinatuta dago eta 190 Km/h-ko abiaduraraino iritsi daiteke.

Porsche Consulting-en ikerketa baten arabera, 2035ean 32.000 milioi eurokoa izango da aireko taxien negozioa, baina horien etorkizunaren inguruko zalantzak ere badira. Alde batetik, aireko taxien nolakotasunak zabaltzean behin eta berriz aipatu da ez dutela karbonorik isurtzen, baina ez da guztiz horrela: elektrikoak direnez, erabiltzeko momentuan karbono-izurtzerik ez dagoela egia bada ere, oraingoz, behintzat, karbonoa isurtzen duten energiak eta lehengaiak erabiltzen dira, taxi horiek egiteko eta baliatzen duten energia elektriko lortzeko. Beste aldetik, zelan arautuko da gure herri eta hirietako espazioa⁵? Airez bidaiatu ahal izateak gure hirien trafikoa erraztuko du benetan?

Etorkizunera itzultzea (Back to the future) pelikularen bigarren atalean Delorean autoa lehenengoz hegaz ikustea itzela izan zen. Baina gidabaimen "normala" ateratzea zaila dela kontutan hartuta, nolakoa izango ote da halako traste batena ateratzea?

- (1) The Transactions of the Royal Institute of British Architects Town Planning Conference, London, 10-15 October 1910, https://labur.eus/AIKOR_HEGAZ1
- (2) Vertical Aerospace VX4, https://labur.eus/AIKOR_HEGAZ2
- (3) Joby Aviation https://labur.eus/AIKOR_HEGAZ3
- (4) Hirietako joan-etorriak era autonomoan egiteko lehen aerotaxia garatu du TECNALIAk, https://labur.eus/AIKOR_HEGAZ4
- (5) Taxis verticales: ¿Merece la pena privatizar el cielo?, Sofia Greaves, The Conversation, 2022/06/06, https://labur.eus/AIKOR_HEGAZ5

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

ArtileArtean

Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

aldekone
hartz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Unbe 7, behe
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak
zentro bakar batean
-Aurrekontua duan
-Especialitatea:
umeak

San Joan sua

Odolak su barik irakin

Sutan erre ala surtan erre?



t: Juan Luis Goikoetxea

San "Juan" bezpera gauean, ekainaren 23an, egiten den sua da San Joan sua. Euskaltzaindiak toponimiarako eta jai-eguna izendatzeko Donibane izena hobesten du. Ipar hemisferioan udako solstizioaren hasiera dela-eta ospatzen da. Urte osoko egunik luzeena dugu. Ohitura ezaguna da -ahaztuz doana-etxeko atarian lizarraren edo "San Juan

aretxa"ren adarrak jartzea tximistetatik, oinaztutik, inizitutik babesteko.

Zentzunak diosku sua pertsonak baino lehenagokoa dela gure planetan, ze oinaztuak, tximistak baziren gizakia sutondoan jesarri baino lehen. Gero, milaka urte igaro ostean ikasi dugu "su gaberik ez dela kerik". Eta kea zabal-zabal kokatu dela lurraren ortzian. Ondorioz, hasierako ke txikiak handi bilakaturik, planetaren berotze globalaren arriskupean

bizi gara. Konturatzen gara lurra berotu dela, bihotzak hotz ditugulako.

Gaur egun ere, emakumezkoen eta gizonezkoen bihotzeko taupadak sinkronizatzeko-premian daude, supazterrean batera berotu ahal izan gaitezen, baina elkar erre gabe. Sutondoa katuen zerua den bezala, geurea ere izan liteke, hauspoa errespetuz eta adiskidetasunez erabiliz gero. Ahaztu gabe, beti ere, odolak su barik irakiten duenez, denok beharko dugula izan, lantzean behin, suhiltzaile.

Suaren joan-etorriak aipaturik, euskaldunaren historiari begiratzen badiogu, behingoan ohartuko gara SU baino zaharragozat har daitekeela SUR aldaera¹. Berez, suan erako formak ekialde zabalean erabiltzen dira; SURTAN era-koak bizkaieraren eremuetan-eta. Hau da, Txorierriko euskaldunek gaur ere erabiltzen duten modu bereberean hitz egiten zutela antzina: "Surtan erreza zein gozo bisigua!".

"Sua Gabonetan txapan, San Juan-etan plazan" dio atsotitzak. Orain ekainean, bagilean, plazan gara, dantzari nahiz kantari. Herriz herri bagoaz, abestietako letrak antzekoak diren arren, aldaerak dituzte. Guk boz goraz abes ditzagun hau-xe letrau jarri dizugu DERIOZTARREN EUSKARA liburutik hartuta:

*San Juan bagillea
denpora ederrean
artoak eta gariak gorde
zapoak eta sugeak erre.
Gaur dala bihar dala Doniene
etzi San Juan biha(ra)mone
gure soloan sorginik ez,
badauz bere erre direz.²*

(1) Ikus Euskal Hiztegi Historiko-etimologikoa. (EHHE-200). Euskaltzaindia. Bilbo 2019.

(2) Derioztarren euskara: Iñaki Gaminde, Esther Elgoibar, Atotz Goikoetxea, Ziortza Sanz, Oihana Astobieta, Jon Gaminde.

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

**PELUKERIA
ESTETIKA
LARRABETZU**

Anguleri nº 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144

Torrealdy

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA

Etxeko sukaldaritza

Haragiz eta ziazerbaz
beteriko hostorea*t: M. Lekerika / a: Shvets production (Pexels)***Osagaiak (lau pertsonentzat):**

- Hostore-xafila bat
- Kipula erdia (txikitua)
- 300 g ziazerba (garbituta eta txikituta)
- 300 g txahalki (txikituta)
- 75 g gazta birrindua
- Gorringo bat
- Oliba olio
- Gatza

Prestatzeko era:

Kipula olio-zurrusta batean errego-siko dugu. Ziazerbak gehitu, eta errego-

siko ditugu. Ondoren, haragia botako dugu, eta apur bat egin. Gazta birrindua gehituko diogu nahasteari. Bestalde, hostorea irin apur baten ganean zabalduko dugu. Hostorearen gainetik egindako nahastea zabalduko dugu, eta biribilkia eginez hostorea bildu. Gorringoa eta olio apur bat nahastu, eta biribilkia nahasketa hori erabilia "pintatutako" dugu. Labe beroan, 180 gradutan, sartuko dugu eta bertan 25 minutu inguru izango dugu. Biribilkia lautan zatituko dugu, eta zerbitzatu. Entsaladak edo piper gorriek lagunduta atera ahal dugu mahaira.

Masusta gorri-
limonada*a: Naim Benjelloun (Pexels)***Osagaiak (lau pertsonentzat):**

- 150 g masusta gorri
- Litro bat ur (hotza)
- Limo bi (zuritu gabeak eta laurdene-tan moztuta)
- Mendafina (bi adaxka)
- 4 koilarakada azukre
- 10 izotz-puska

Prestatzeko era:

Masusta gorriak txiki-txiki egingo ditugu. Litro erdi ur, limoia eta azukrea gehitu, eta dena birrinduko dugu. Gainerako ura gehituko dugu, eta eragin. Edaria dastatuko dugu, eta beharrezkoa izanez gero, azukre gehiago botako dugu. Limonada iragazi, eta pitxar batean ipiniko dugu. Izotz-puskak eta mendafin-hostoak gehituko ditugu.

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

HARATEGIA
ALBERTO

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

TABERNA
GAZTEI

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gaztedi@taberna@gmail.com

SARRIKOLA
OGITEGIA

Euskal pastela
Basemko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, 2/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Umeen txokoa: zazpi desberdintasunak

Ezetz zazpi desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.

a: onlykidsonly.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

–Soka (Susa), Mikel Gurrea.

–Ulises (Igela), James Joyce.

–Ene anaia femeninoa (Erein),
Marina Tsvetaieva; itzultzailea:
Joxe Mari Berasategui.

–Erradikalak (Liana editorial), Ane
Labaka Mayoz eta Beatriz Egizabal
Ollokiegi.

–Hotza bazkatzen (Balea zuria),
Izaskun Igoa Jaimerena

LITERATURA: GAZTEAK

–Amaiur. Gaztelu baltza
(Nabarralde). Angel Rekalde
Goikoetxea; ilustratzailea:
Amaia Ballesteros.

–Mundua ulertzeko ipuinak 2
Denonartean-Cenlit, Eloy Moreno
Olaria; ilustratzailea: Pablo Zerda.

–Mary Anning: Herensuge-ehiztaria
(Ikaseltkar), Jordi Bayarri

–Isadora Moon: Jolas-parkera doa
(Mezulari), Harriet Muncaster.

Sudokua

	5		9	4	7			
8				3				
			2		6		3	
	9			7			2	
6						7		
		4	8					
		9	4		2			6
	2				8			
5		6				3		

2	4	3	6	1	7	9	8	5
7	5	6	8	9	3	1	2	4
9	8	1	2	5	4	6	3	7
5	1	9	3	6	8	4	7	2
3	6	7	4	2	5	8	1	9
4	2	8	1	7	9	5	6	3
1	3	5	9	8	2	7	4	6
6	7	4	5	3	1	2	9	8
8	9	2	7	4	6	3	5	1



Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Lolu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:

www.taxisaeropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A



Alaia

fruta-denda

Etkez etxeko zerbitzua
Bertoko produktuak

Telur. 5
48170 Zamudio
94 485 05 85



38 ZU ARGAZKILARI



Estitxu Perez, Zamudio



Iratxe Pirla, Larrabetzu



Iratxe Pirla, Larrabetzu

Sondigarbi
GARBITEGIA

ITURRIGANE, 2
635584941

EGUNERO
8:00-22:00

elekma

URRIA ZERREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXUKAK

lehenengo merkatik • Preziozko onenak.

BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txarriren etorbidea, 25-3.N. • 48180 Irujo
Tl: 944 599 232
www.elekma.es

XURREGOITI
JATETXEA

Laurgoeta etorbidea, 27
48180 Lailu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteauregoiti.com

Txorierriko azken albisteak jaso nahi dituzu?



Bidali ALTA

747 406 561
telefono zenbakira

Izan zaitez berriemale ere. Bidali zure argazki, bideo eta berriak.

Hilero lagun birentzako bazkaria zozkatuko dugu parte-hartzaileen artean (Baserri Antzokian).

LAGATZU EGUNA 2022

Ekainak 24

20:00 INGURUKO BERBAK

liburuaren aurkezpena
Kultura Etxean (Gimnasia gelan)

21:00 KONTZERTUA

Fernan taberna ondoko plazan

Ekainak 25

12:00 ARTE BIZIDUNA

Euskal artelaren irudikatze herrikoia
(Iker Landetaren azalpena + Zamudioko Kamara Korala)

13:30 KALEJIRA

Bertoko eta Kantareluxen eskutik

15:00 HERRI BAZKARIA, Agirre Plazan

20€ nagusientzat

15 € umeentzat

Txartelak herriko denda eta tabernetan salgai
Erosteko azken eguna ekainaren 21a

17:00 TABERNA IBILTARIA

UMEEN JOKUAK: ZURESKU

Egurrezko jolas tradizionalak

20:00 ERROMERIA: TRIKIZIO

Benetako artea, euskara erabiltea

Animatu eta parte hartu koadrileagaz.
Atara armairutik euskal jantziak!